

aikor

TOKIKOM

2026ko martxoa · #266

Bizitzaz blai!

INAUTERIAK

24. korrika

Bertso Afaria

Baserri Antzokian

Martxoak 27

Barikua

21:00



Gai-jartzailea: Iñaki Arbildu

→ **25 €**

Sarrerak salgai

- Larrabetzu: Txirri Lekue (tlf.: 656 786 744)
- Lezama: Oxangoiti tabernan
- Zamudio: Liburudendan
- Derio: Baserri Antzokian
- Derio: AEK Txepetxa
- Whatsapp 629 424 645 (Bizum)



aikor.

Argitaratzailea:

TOTOAN Txorierriko Euskara Elkartearen Federazioa (Lagatzu, Zorritzeta, Altxora, Darabilgu eta Tximintx komunitatea)

Zuzendaria:

Xabier Goienetxe

Erredakzio burua:

Mikel Reina Barros

Maketatzailea:

Aner Mentxaka

Publizitatea:

Ruth Bilbao (688 782 642)

Kolaboratzaileak:

Eder Merino
Idoia Andres
Juanjo Ortiz
Nagore Lopategi Escallada
Xabier Diaz
Irati Gañan Rodriguez
Iñaki Olabarrieta
Jose Angel Mentxaka
Estitxu Pérez Castro

Inprimategia:

Gertu

Banaketa:

Pac publicidad

Ale kopurua:

8.000

Lege gordailua:

BI 137-02 ISSN 1578-9322

aikortxori@aikor.com

688 864 135 · 747 406 561

aikor aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota iritzien erantzukizunik.

CC BY-SA 3.0

Aitortu - Partekatu Berdin 3.0 Moldatu gabea



SUMARIOA

- 4 Iritzia
- 4 Gutuna
- 5 Berri laburrak
- 12 Zozketak
- 13 Sorlekua
Orainaren
- 14 Gurean izan da
Olatz Ovejero Alfonso
- 16 **Ainara Andueza Reija**
- 18 **Txoriberri**
- 20 **Itsaso Arrieta Goiri**
- 24 **Inauteriak**
- 28 Atzera begira **ATAL BERRIA**
- 29 Neurodoinuak
Zer da musika zuretzat?
- 30 EMAUS
- 31 Teknologia
**Ez arma jostailurik erosi,
deabruak kargatzen ditu eta**
- 32 Menditik patxadaz
Gorliztik Lemoizera, Armintzatik
- 34 Herbarioa
Hibiskoa
- 36 Sukaldaritza
- 37 Denbora-pasak
- 38 Martxoko agenda



BIZKAIKO FORU ALDUNDIAK BABESTUTAKO HEDABIDEA



IRITZIA

Marea gora

Mareak dira itsasoaren mugimendu ziklikoak. Gora eta behera egiten dute ilargiaren eraginez. Gora eta behera. Aitzitik, faxismoaren olatu erreakzionarioak gora eta gora baino ez du egiten azkenaldian. Ez dago beherakadarik. Momentuz.

Ez dugu Etxe Zurira jo beharrik gorakada horren gertuko adibide argiak ikusi eta sufritzeko. Epelkeria medio, faxismoa gure herriko mendi berdeen artean eta baserriko sutondoaren epeltasunean ere sentitzen da. Gora etengabe.

Arraza profilaren arabera sarekada bakoitzean, pertsonen erregularizazioen aurrean muturra okertzean, etxegabete bakoitzean bestaldera begiratzean, pertsonen jatorria desberdintasunak markatzeko erabiltzean, marikoi, pantxito edota moro bakoitzeko barre egiten dugunean edo hizkuntza inklusiboaren ezinbestekotasunari mespretxua egiterakoan ere faxismo hatza dario. Hamai-

Epelkeria medio, faxismoa gure herriko mendi berdeen artean eta baserriko sutondoaren epeltasunean ere sentitzen da.

katxu adibide ditugu gure inguruan; ez dugu urrutira jo beharrik.

Desegoki kontatu ziguten historia, baita jolasaren arauak ere bai. Ez dugu ondo trantsizionatu. Ez da parkamenik eskatu, zauririk sendatu ezta erreparaziorik eskaini ere. Epelkeria baliatuz pedagogia egiten saiatu gara giza eskubideak urratzen dituenarekin; klaseko ikastuna bagina legez. Jolasa balitz bezala espazioak galarazi

EDER MERINO
Irakaslea



dizkigute eta, bitartean, barre egin dugu; gure historia eta azala bortxatu dituzte eta barre egiten jarraitu izan dugu jolasa bukarazi duten arte. Biolentziaz beteriko diskurtsoak normalizatu ditugu eta horren fruituak jasotzen gabilta. Orain, ordean, ez dugu barrerik egiten. AEBetatik hasita eta gure herriko mendi berdeen arteko baserri-politenera arte kokotean sentitzen dugu totalitarismoaren arnasa. Iritzi oro errespetatu behar delakoaren tranparekin ziria sartu ziguten eta orain esbastikak topatzen ditugu gure herrietan eta irainez beteriko hitzak kalean zein legebiltzarrean.

Olatu erreakzionario horren aurrean ikastunak baino, hobe klasean edo autobusean atzean esertzen zirenen jarrera izan irmoki erantzuteko eta faxismoaren arnas espazioa ahalik eta gehien mugatzeko.

Mareak ziklikoak dira. Beti. Eta Kantauri itsaso inguruan ondo dakigu gora egiten duten era berean behera ere egin behar dutela. Beti.

GUTUNA

Martxoaren 17an, greba orokorra

Posible ikusten al duzu 1.500 euro azpiko soldatarekin duin bizitzea? Alokairua edo hipoteka, argia eta ura, janaria; haurrak izatekotan, arropak, ikastetxea, jantokia, partikularrak... Ordaindu beharrekoen zerrenda gero eta luze eta garestiagoa da. 1.500 euroekin bizirautea zaila bada, duin bizitzea ia ezi-nezkoa da. Denok ezagutzen dugu hilabete bukaerara heldu ezin dabilen norbait. Agian ezagutzen dugu. baina ez dakigu, lotsaz bizi duelako. Agian gu geu gara.

1.500 eurokoak izan behar dira gutxieneko diru sarrerak Euskal Herrian duintasunez bizitzeko. Ez diot nik, Europar Batasunak dio: lurralde bakoitzeko diru sarreraren bataz bestekoaren %60 izan behar da lurralde horretako gutxieneko soldata. Gure kasuan 1.500 euro.

Baliteke zure buruari “nork kobratzen ditu 1.500 euro baino gutxiago?” galdera egin izana, harriduraz edo. Bi pertsona-

tik batek litzateke erantzun zuzena. Zu bizi zaren eraikineko bizilagunen erdiak ez dauka duintasunez bizitzeko pentsio, soldata edo diru sarrerarik. Langile aktiboetako bostetik batek.

Aberatsak gero eta aberatsago, eta langileok gero eta pobreago gara. Langileon lan indarrak sortzen dugun aberastasun gehiena enpresen esku gelditzen da. Dirua egon badago, gero eta esku gutxiagoren artean banatzen da, ordean: hori frogatzen du BPGan (lurralde bateko aberastasunaren neurgailuetako bat) soldatek gero eta pisu gutxiago izateak. 1.500 euro baino gehiago kobratuta ere, gutxi eta geldo igo dira soldatak azken urteetan, zeresanik ez bizitza igo den prezioarekin alderatuz gero.

Horregatik, Hego Euskal Herriko gehiengo sindikalak martxoaren 17rako greba orokorra deitu dugu. Gutxieneko soldata propioaren alde: Euskal Herrian

gure errealtateari lotutako gutxieneko soldata izateko. 1.500 euroko gutxieneko soldataren alde: herritar oro duintasunez bizitzeko. Eta aberastasuna banatzearen alde: denon artean sortutako aberastasuna hobeto banatzeko.

Guztioi eragiten digun gaia da, baita zuri ere. Greba hau langile klase guztiarena da, ez bakarrik egun 1.500 euro azpitik kobratzen dutenena. Soldatak hobetzeaz eta gutxieneko soldata bat ezartzeaz ari garelako, guztiontzako. Elkartasunagatik, datozen belaunaldiengatik, bihar gerta daitekeenagatik.

Greba egiteko unea da, lantokiak hustu eta kaleak betetzeko. Martxoaren 17an, zuk ere egin greba!

IRAIDE JUARISTI
LAB SINDIKATUAREN
ESKUALDEKO ARDURADUNA

BERRI LABURRAK



Loiuko Udalak Landatxueta udal igerilekuak jartzeko plana aurkeztu du

Udalak duela bi urte erosi zuen Landatxueta Kluba 400.000 eurogatik eta orain inbertsioak egiten hasiko dira, hasteko, udal igerilekuak egiteko plana aurkeztu dute.

Loiuko Udalak azken urteetan urrats estrategikoak eman ditu etorkizunera begira. Azkena, Hariztondo-Txiline zonaldean 400 etxebizitza eraikitzeko baimen guztiak lortzea izan da. Orain, Landatxueta Klubeko lurretan udal igerilekuak jartzeko plana aurkeztu du.

“Gure helburua epel luzera begiratzea

da, aztertu behar dugu zer nolako kultur eta kirol zerbitzuak eskaini nahi dizkiegun herritarrei”, azaldu du Josu Andoni Begoña alkateak. Era berean, jakinarazi du hurrengo hilabeteetan aterako dutela obrak egiteko lizitazioa, baina “orain arte dagoen eraikina” baliatu nahi dutela.

Lanok hainbat fase izango dituzte. Hain zuzen ere, udalaren asmoa da igerilekuez gain, aurrera begira bestelako zerbitzuak eskaini ahal izatea Landatxueta. Horretarako, herritarren parte hartzea eskatuko dutela aurreratu dute.



Izagirre-Ormaetxe eta Labaka-Sotil bikoteak, Lezaman txapeldun

Lezamako Pelota Klubak antolatzen duen 66. eskupilota txapelketako final handiak jokatu zituzten otsailaren 20an. Bertan, Oier Hormaetxe herriko semeak ezin izan zuen bigarren urtez jarraian txapela jantzi. Pilotalekua bete egin zen.

Gazteen mailako finalarekin hasi zen jaialdia, pilotari guztiak Lazkaoko Lapke taldekoak zirelarik. Izagirrek eta Hormaetxek ezin hobeto eman zioten hasiera partidari, eta 12-1 aurreratu ziren. Biak ala biak oso nagusi izan ziren

kantxan eta ez zieten Armaolea eta Figeroari inolako aukerarik eman. Azkenetarako 22-11.

Nagusien finala ere bide beretik joan zen, hasiera erabakigarria izan zen. 11-4 aurreratu ziren Labaka eta Sotil, eta Hormaetxe lezamarrak eta Elorzek ezer gutxi egin ahal izan zuten. Sotilek atzeko koadroetan dominatu zuen, eta Labakak ez zuen aurrean barkatu, hain zuzen, txapelketako pilotari onenaren saria jaso zuen. 22-12 gailendu ziren.

Sei hilabetez itxi dute Txorierri eta Deustu arteko Artxandako tunela

Otsailaren 3tik Artxandako tuneletako Deustu eta Txorierri arteko tartea itxita dago. Sei hilabetez itxita egotea aurreikusten du Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegitura eta Lurralde Garapen Sailak.

Azpiegitura estrategiko hori berritzeko eta egokitzeko lanen bigarren fasearen hasiera lanak dira. Fase horrek zazpi hilabete iraungo du, baina zirkulazioari gehien eragingo diotena lehen seiak izango dira. Obrek 12,8 milioi euroko inbertsioa dute aurreikusita, eta “Bilboko bide konexio nagusietako baten segurtasuna, eraginkortasuna eta iraunkortasuna indartzea dute helburu”. Fase honek jarraipena ematen die 2024an hirugarren tunelean, Ugasko eta La Salve artean, hasitako lanei, eta Artxandako hiru hodiak modernizatzeako plan integrala osatzen du.

2002tik martxan dauden Artxandako tunelek Bilbo Txorierriekin, aireportuarekin eta Bizkaiko Parke Teknologikoarekin lotzen dute, eta 30.000 ibilgailu erregistratzen dituzte egunero, batez beste. Bigarren tunela (Ugasko-Txorierri) ixten den bitartean, Bilbo eta Txorierri arteko lotura lehen tunelaren bidez (Salbea-Txorierri) eta Enekuriko eta Santo Domingoko sarbideen bidez egin beharko dute herritarrek.

Bizkaiko Foru Aldunditik jakinarazi dutenez, Bilbo eta Larrabetzu arteko 3223 autobusean, Museo Plaza eta Deustuko Unibertsitateko galelekuak kendu dituzte Larrabetzurako noranzkoan eta Deustuko Unibertsitateko Bilborakoan. Alameda Rekalde kalean jarri dute aldi baterako galelekua, La Salve zubitik hurbilen dagoen aldean. Gainera, Bilbo eta Zamudioko Parke Teknologikoa batzen duen 3250 autobusari dagokionez, ez da erabilgarri egongo Deustuko Unibertsitateko galelekua bi norabideetan. Kasu honetan ere La Salve zubira lekualdatu dute galelekua.



Larrabetzuko Herri Taxia Usansoloko Ospitalera arte heldu da

Auzoak eta herrigunea lotzeaz gain, Larrabetzuko Herri Taxiak Usansoloko Ospitalerako joan-etorriak osatu ditu. Zerbitzua plenoan onartuta dago eta urte hasierarekin batera eman diote hasiera.

Larrabetzuko Udalak helburu dauka beharrian gehien duten herritarrentzat taxi zerbitzua bermatzea. Erabili ahal izateko Larrabetzun erroldatuta egon beharko da erabiltzailea, 65 urte edo gehiago izan behar ditu, %33ko desgaitasuna edo handiagoa izatea eta mugikortasuna murriztua izatea edo bestela behar bezala egiaztatutako arrazoi medikuengatik mugikortasuna aldi baterako mugatua izatea. Interesa izan eta baldintza betetzen dutenek udaletxean egin behar dute bidaia bonuen eskaera.

Herri Taxiak hiru ibilbide eskainiko ditu. Batetik, Larrabetzu eta bere auzoak lotuko ditu. Bestetik, auzoetatik Usansoloko Ospitalera joateko joan-etorriak kubrituko ditu, baita herrigunekoak ere. Lehen ibilbideak 5 euro balio ditu, auzoetatik osasun zentrora artekoak 13 euro eta herri-gunetik ateratzen direnentzako 9 euroko prezioa dauka.

Zerbitzua urte osoan egongo da erabilgarri, astelehenetik barikura 07:00etatik 15:00etara. Onuradunak zuzenean taxiko gidariarekin jarri beharko da harremanetan, zerbitzua erabili nahi duen egunaren bezperako 19:00ak baino lehen.

Argitu nahi izan dute zerbitzua bateragarria dela administrazio edo erakunde publiko edo pribatueta beste dirulaguntza, laguntza edo diru-sarrera batzuekin.

BERRI LABURRAK



Olaia Aguayok interpretazio nagusi onenaren saria irabazi du Zinemastean

Larrabetzuar aktoreak 'Maspalomas' filmeko Jose Ramon Soroizekin partekatu du saria. Horrez gain, 'Jones, batzuetan' filmak ikusleen film onenaren saria jaso du.

Jose Maria Goenagak eta Aitor Arregik zuzendutako 'Maspalomas' filmak irabazi du 42. Euskal Zinemaren Jaialdiko sari nagusia. Filmak film onenaren, zuzendaritza onenaren eta interpretazio protagonista onenaren sariak eskuratu ditu. Fil-

ma orain Goya sarietara joango da, non bederatziz izendapen dituen.

Sariak emateaz arduratu den epaimahaia zinematografiaren arloko bost profesional nabarmenek osatu dute: Sonia Almarcha aktorea, Cristina Delgado kazetaria, Eulalia Ramón aktore eta zuzendaria, Javier Ruiz Caldera zuzendari eta gidoilaria eta Enrique Villen aktorea.

Larrabetzun zaintzak demokratizatzeko ekintza plana osatu dute

2026-2027 aldirako plana da, lau ardatz nagusi ditu eta Larrabetzuko Udalak eta Zaintza Mahaiak bi urte baino gehiago daramate lanean ekintza plana osatzen.

Larrabetzuko zaintza eredu "bidezkoa-go eta komunitarioago bat" eraikitze-ko konpromisoa hartu du. Zaintzak demokratizatzeko ekintza plana ondu dute. 2024ko diagnostikoan identifikatutako beharrak eta 2025ean egindako esperientzien jasoketak kontuan hartuta osatu dute udalak eta Zaintza Mahaiak 2026-2027 aldirako ekintza plana.

Lau ardatz nagusitan oinarritzen da eta helburu "zehatzak" dituela diote. Batetik, udalgintza zaintzailea indartu nahi dute, hau da, zaintzen gobernantza sendoa eraiki. Horretarako, zaintza arloa sortuko dute, udal langileei Pertsonetan Oinarritutako Arreta ereduaren prestakuntza eskaini, herriko baliabide publiko eta komunitarioen mapa zabaldu eta irisgarritasuna hobetzeko oztopoak identifikatu

eta konpontzeko plangintza egin.

Beste helburu nagusietako bat zaintzaren inguruko sentsibilizazioa handitzea da, "zaintzak ikusgarri bihurtuz eta auzolana aktibatuz". Urtero 'Zaintzak erdigunera' eguna antolatzea aurreikusten dute, baita herritarrei eta kolektibo zehatzei zuzendutako prestakuntza eta informazio saioak eskaintzea ere.

Hori aurrera eramanez ahal izateko, sare komunitarioak indartzea beharrezkoa ikusten dute: bakardadearen diagnosi parte-hartzailea egin eta neurriak garatu, zaintza mahaia egonkortu, ebaluazio jarraitua egin eta jantoki komunitario baten aukera aztertu.

Azkenik, zelan ez, zaintzaileen bizi eta lan baldintzak hobetzean "arreta berezia" jarri nahi dute. Etxeko langileen elkarguneak sortzea eta indartzea dute buruan, "beharrak identifikatu eta prestakuntza espezifiko eskaini". Horrez gain, zaintzaileei errolda soziala egiteko aukera eman nahi diete.

BERRI LABURRAK



Ekoiztetxe handien jokabidea salatuz: “Beldurra eta prekaritatea”

Prime Time ekoiztetxeko ‘En Jake’ saiotik kaleratu dute Mikel Eguia kazetari derioztarra. “Diziplina eza” argudiatuta kaleratu zuten, zuzenekoak mobilarekin egitea ukatu zuen. Abokatuak tarteko, ekoiztetxea atzera pausoa eman eta adiskidetzatza-ekitaldia sinatu dute.

Kazetaria 2019ko abenduan hasi zen Prime Time ekoiztetxeko ‘En Jake’ saioan lanean. Hasiera batean erredaktore lanak

egiten bazituen ere, laster kaleak hartu zituen erreportari lanak egiteko. Hasieratik MoJo (Mobile Journalism) sistema erabiltzen hasi zen, hau da, zuzenekoak mobilarekin grabatzen zituen. Horrela egon zen lanean 2025eko otsailera arte, mobilarekin lan egiteaz “nazkatuta”, kamera lankide bat jartzea lortu zuen arte. Uztailean esan zioten denboraldi berriari begira, mobilarekin berriro lan egitera it-

zuli beharko zela. Eguiak ezezkoa eman zuen eta erredaktore postura itzuli zen.

Iazko abenduan, Gabonetako loteriararen aurreko egunean, enpresak esan zion kalera atera beharko zela lan egitea mobilarekin. Ezezkoa mantendu zuen eta bi egunetara diziplina-espeditente bat aurkitu zuen mahai gainean “diziplina ez eta konfiantza falta handia” osatu zuela esanez. Alegazioak aurkezteko lau eguneko epea eman zioten eta lanera ez joateko aukera bazuen ere, “lankideengatik” bere jarduna osatu zuen. Azkenean, kaleratu egin zuten. “Harrigarria da kaleratze gutunean jarri zutela lan egin nituen lau egun horiek nire diziplina ezaren adibide bat zela”.

ETBko langile batzordeak kaleratzea salatu zuen. Hain zuzen ere, ez zen kaleratze bakarria izan ekoiztetxe berak beste langile bat kaleratu baitzuen jokabide berdinarekin. Euskal Herriko ekoiztetxe handien ereduak honako hau dela kritikatu zuen langile batzordeak: “Beldurra eta prekaritatea”.

Albisteak zabaldu ostean, langile batzordeak prentsa oharra kaleratu zuen eta adiskidetzatza-ekitaldi batera deitu zuten derioztarra. “Kaleratze desegoki bat osatu zutela aitortu zuten eta horregatik indemnitzazioa ordaindu beharko didate”. Eta akordioa sinatu dute.

Eguiak salatu du ekoiztetxe handiek horrelako jokaerak hartzen dituztela eta helburu dutela “langilea mehatxatzea eta bere eskubideengatik ez borrokatzea”.

**ZAMUDIO-DERIOKO
LURLANGILEEN ETXEA**

Santi Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)

Ford Goiri'78
ZERBITZU OFIZIALA

944 532 515
goiritaller@fordgoiri.com

BOSCH Service
ATEKA
Bosch Car Service

946 740 456
ateka@bosch-bcs.com

Txorierri Etorbidea, 46 - Pab. 5C - 5D
SONDIKA

Centro Dental Txorierri

Rocío Astorkia Bordegaray
Col. nº 48000759

Ainhoa Rodríguez Mella
Col. nº 48001337

Igone Nieto Hernández
Col. nº 48001462

Mitxine 7, behea - 48150 Sondika
(geltoki aurrean)
Tfno.: 944 711 639 - Larrialdiak: 670 985 885
www.cdtxorierri.es

ORTODONCIA21

Itzuliako 4. etapak Txorierri zeharkatuko du

Apirilaren 9an Galdakaon hasi eta amaituko da etapa eta bidean Txorierriko hainbat herri zeharkatuko ditu. Viveroko igoerak erabakigarriak izan daitezke. Igor Anton txirrindulari ohiak diseinatu du etapa.

Txirrindulariek ostera ere hartuko dituzte Txorierriko errepideak. Apirilaren 6tik 11ra Itzulia lehiatuko dute eta laugarren etapak bailarako hainbat herri zeharkatuko ditu. Galdakaotik aterako da tropela eta Larrabetzurantz joango da Busturialdera eta Mungialdera bideratzeko. Santo Domingotik sartuko dira txirrindulariak Txorierri eta Derio eta Zamudio zeharkatuko dituzte Vivero igo arte. Gero, Larrabetzutik berriro Galdakaorako bidea hartuko dute.

Beste Birak hiru podium lortu ditu 10 kilometroko Espainiako Txapelketan

Otsailaren 14an Ibizak hartu zuen 10 kilometroko modalitateko Espainiako Txapelketa eta Loiuko taldeak emaitza bikainak lortu zituen. Hiru podiumekin “oso pozik” agertu ziren taldeko kideak, baina batez ere “taldeko giro bikaina” nabarmendu zuten.

Hiru podiumak Master kategorian lortu zituen Beste Bira taldeak. Igor Garcia Zarraga txapeldunorde izan zen M50 mailan, irabazlearengandik bakarrik lau segundora. Horrez gain, Garcia, Eduardo Manzanos, Eduardo Martin eta Josu Rondak osatutako taldeak bigarren postua lortu zuten ere M50eko taldekakoan. Azkenik, M40 kategoriako taldeak (Juan Carrascal, David Lopez eta Javier Allende) bron-tzezko domina eskuratu zuen.

BERRI LABURRAK



Loiuko arte eta kultura asteburua, martxoaren 27tik 29ra

Loiuko Bakarrak Gazte Elkartek, Korrika Batzordearekin elkarlanean eta udalaren laguntzagaz, arte eta kultura asteburua antolatu du martxoaren 27tik 29ra. Hain zuzen, martxoaren 29an ailegatu da Korrika Bilbora.

Urtero legez, helburu dute jai giro herrikoia sortzea eta herritarrek parte hartzea, “kultura eta euskal kultura erdigune izanda eta aurtan gainera Korrikaren asteburuan”. Horretarako, askotariko ekimenak antolatu dituzte.

27, barikua

18:00-22:00 **Bigarren eskuko arropa eta liburu merkatua**, frontoian

18:30-21:00 **Zeramika tailerra**, kultur etxean

28, zapatua

11:00 **Korrikarako peto eta mural apainketa**

12:00 **Sukalki lehiaketan izen ematea**

12:30 **Korrika Txiki**

12:30-20:00 **Herriko artisten erakusketa eta artisauen azoka**

14:00-14:30 **Sukalki aurkezpena**

17:00 **Bertso saioa**

18:00 **Dantza plaza**

20:00 **Taberna ibiltaria**

29, domeka

06:00 **Danok Korrikara**

Derioko suhiltzaileen parkeak autoponpa kamioi berria dauka

Azken belaunaldiko ibilgailua da, teknologia aurreratuak eta autobabes sistemak ditu eta hiru hamarkada baino gehiagoz zerbitzua eman duen baso autoponpa ordezkatzen du. Horrela, Bizkaiko Foru Aldundiak amaitu du bere flotan 25 urte baino gehiago dituzten baso ibilgailuak berritzeko kanpaina, “baso suteetan eta landa inguruneetan esku hartzeko gaitasuna indartuz”.

Basoko kamioi autoponpa berri hau eskuratzeko 472.524,36 euroko inber-

tsioa egin behar izan da. “Aldundiak aurrera egiten jarraitzen du flota modernizatzen eta pixkanaka berritzen eta herritarren segurtasunarekiko, eraginkortasun operatiboarekiko eta babesarekiko konpromisoa indartzen du”. Ibilgailu berri hau, Bizkaiko Prebentzio, Suhiltzaile eta Salbamendu Zerbitzuaren flota osatzen duten gainerakoekin batera, lurralde osoari “ahalik eta zerbitzurik onena” eskaintzeko “etengabeko” ahaleginaren adibide dela diote.

BERRI LABURRAK



Oskar Gazteluk BizkaIdatz literatur lehiaketako bigarren saria irabazi du

Larrabetzuarrak euskarazko bigarren saria lortu du 'SINMURGH!' lanarekin. Otsailaren 9an banatu zituen sariak Leixuri Arrizabalaga Euskara, Kultura eta Kirol diputatuak, Foru Liburutegian.

BizkaIdatz literatur lehiaketaren helburua da bizkaitarren artean "literatur sorkuntza sustatzea eta bultzatzea". Parte-hartzaileek kontakizun bat idatzi behar izan dute, idazleek proposatutako bi istorioen hasierari jarraipena emateko, betiere proposatutako kontakizunaren hasierara, pertsonaietara eta planteatutako egoeretara egokituz. 17. BizkaIdatz lehiaketan, Oihane Amantegiren 'Aldiro liburu bat' eta Javier Ibarrolaren 'Mañana en mi casa' liburuetan oinarritu dituzte kontakizunak,

euskaraz eta gaztelaniaz, hurrenez hurren.

Euskarazko modalitatean epaimahai-kideak Oihane Amantegi Uriarte, Borja Alonso Vaamonde eta Gonzalo Arranz Ayala izan dira. Lehen saria Miren Estibaliz Vivanco Ramirezek jaso du 'Ahmed gaztea eta pari-banu maitagarria' lanarengatik; bigarrena Oskar Gaztelu Bilbao larrabetzuarrak 'SINMURGH!' lanarengatik eta, azkenik, Francisco Javier Gimenez Sasietak hirugarren saria jaso du 'Alepokoz gizona' lanarengatik.

Irabazleak 2.000 euro poltsikoratu ditu, bigarrenak 750 euro eta 250 euro hirugarrenak. Gainera, Foru Liburutegiko ekitaldian banatu zuten kontakizun guztien argitalpen berria.

Imanol Pradales lehendakariak ITP Aero konpainiaren egoitza bisitatu du

Imanol Pradales Lehendakariak Euskadi 2030 Industria Planaren lehen industria-proiektu eraldatzailea aurkeztu zuen, otsailaren 16an, Zamudioko ITP Aero konpainiaren egoitzan: 'Euskadiko abiazio jasangarri eta lehiakorretako motor aeronautikoko arkitektura berriak' proiektu eraldatzailea.

Euskadik, trantsizio energetiko eta digitalean oinarrituta, etorkizuneko motor aeronautikoen belaunaldi berrien arloan munduan rol garrantzitsua izateko asmoarekin sortu da.

Pradales Lehendakariak nabarmendu zuen euskal sektore aeronautikoa eta aeroespaziala "funtsezko pieza" dela Euskadi 2030 Industria Planean. "Etorkizunean traxzio ahalmen handia izango duen sektorea da, eta helburu argia izango du: funtsezko elementua izatea euskal industria-sarea eraldatzeko eta hazteko".

Hala, azpimarratu zuenez, "Industria Planaren lehen proiektu eraldatzaile honek erronka teknologiko handi bati heltzen dio: etorkizuneko abiazio bihurtuko diren motorreko arkitektura berrien garapena eta industrializazioa".



SARRIKOLA OGITEGIA

Euskal pastela
Baserrako ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta



Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84

KAFETEGIA · OKINDEGIA

LA MODERNA

Egunero, 06:00etatik zabalik



Aretxalde, 64 · LEZAMA · 946 095 091

E. Bilbao Bidaiak



Eskola-garraioa
Kirol elkarteak
Ezkontzak
Txangoak
Jubilatuaren bidaiak
Sagardotegiak
Kongresuak

eneko@bilbaobidaiak.eus
663 231 001

Zabalik dago haur literaturako 16. Mikel Zarate Sarian parte hartzeko epea

Lezamako Udalak eta Elkar argitaletxeak antolatutako sariketan apirilaren 30era arte parte hartu daiteke. Lehen Hezkuntzako ikasleentzat (6-12 urte bitartekoentzat) euskaraz sortutako kontakizunak aurkeztu daitezke, jatorrizkoak, beste inondik moldatu gabeak eta aurretik saririk jaso edo argitaratu ez direnak.

Hain zuzen ere, antolatzaileen helburua da haurrentzako irakurgai berriak sortu eta idazleen lana bultzatzea. Horrez gain, euskal kulturaren alde “lan itzela” egindako lezamar idazlearen gomuta izan nahi dute. Otsailaren 2an zabaldu zuten lanak aurkezteko epea eta apirilaren 30era arte egongo da zabalik. Parte hartzaileek gutxienez 18 urte izan behar dituzte. Neurriari dagokionez, lanak gutxienez 25.000 karaktere izan behar ditu eta gehienez 100.000, hutsuneak barne. Idazlanak udala@lezama.eus posta elektronikora bidali behar dira, bi dokumenturekin: batetik, idazlana bera, egilearen inongo daturik gabe; eta bestetik, idazlanaren izenburua eta egilearen datuak (izen-abizenak, helbidea, telefonoa eta posta elektronikoa).

Leire Bilbao Barruetabeñak, Mairibel Aiertza Rementeriak eta Xabier Mendiguren Elizegik osatuko dute epaimahaia eta maiatzaren 31 baino lehen jakinarazi beharko dute 4.000 euroko sari bakarraren irabazlea. Epaimahaiaren iritziz gutxienerako kalitateko lanik ez balego saririk ez litzateke emango. Elkar etxeak argitaratuko du eleberri edo ipuin saritua, saria jakinarazten denetik sei hilabeteko epean, behar diren marrazkiez horniturik. Alabaina, idazlea izango da lanaren jabea eta ohiko moduan ordainduko dizkio argitaletxeak egile-eskubideak.

BERRI LABURRAK



Parte hartze zabala egon da Zamudioko Krosean

Beste Bira taldeak eta Zamudioko Udalak elkarlanean antolatu zuten otsailaren 1ean Kiki Begoña memoriala. Antolatzaileak “pozik” agertu dira korrikalariak emandako erantzunarekin. Begoñaren familiak omenaldia jaso zuen.

Krosean 65 parte hartzaile inguruk parte hartu zuten, baina Beste Bira taldeetik nabarmendu dute erreleboek jasotako erantzun “zabal eta bikaina”: adin eta sexu desberdineko 27 taldek eman zuten

izena. Umeetan ere handia izan zen parte hartze maila.

Lasterketari dagokionez, gizonezkoetan, Juan Carrascalek lortu zuen garai-pena 14:29ko denborarekin, bigarren izan zen Javier Allende (14:38) eta hirugarren Axel Fernandez (14:40). Emakumezkoetan, Naia Cob izan zen azkarrena 16:55eko markarekin, bigarren Virginia Berasategi (17:19) izan zen eta hirugarren Lierni Arconada (18:19).

Kutsadura kontrolatzeko neurriak eskatu dituzte Erandion

CSICeko Pirinioetako Ekologia Institutuko ikertzaileek egindako sei urteko ikerketa batek kezka piztu du Erandioko eta inguruko airearen kalitatearen inguruan.

Ikerketaren arabera, herritarrek arnasten duten kutsadura maila “esanguratsua” da, “bereziki PM2.5 partikula finen eta metal astunen presentziagatik”. Datuen arabera, hirigunean kutsadura mailak gaur egun indarrean dauden urteko muga legalak gainditu dituzte, eta industria eremuan, formalki araudiaren barruan egon arren, laster indarrean sartuko den araudi berriak ezarritako mugak bikoizten dituzte.

Era berean, metal astunen presentzia kezkarria dela nabarmendu dute, eta kutsadura horren zati bat industria eremutik hirigunera hedatzen dela ohartarazi dute. Nahasketa horren epe luzeko ondorio guztiak oraindik guztiz zehaztu ez diren arren, osasunerako arrisku potentziala “handia” izan daitekeela diote, “bereziki

arnas aparatuko gaixotasunei dagokienez”.

Hala ere, ikerketaren egileek argi utzi dute helburua ez dela alarmismoa sortzea, baizik eta prebentzioa sustatzea, eta herritarren eta tokiko elkarten parte-hartzearen garrantzia azpimarratu dute. Testuinguru horretan, adituek neurri zorrotzagoak eskatu dituzte: kutsadura-iturrien kontrol handiagoa, jarraipen-sistema sakonagoak, datuen garrantasuna eta osasun publikoa babesteko politika eraginkorrak.

Erandioko Udalak balorazio baikorra egin eta datuak Europako araudiaren barruan daudela azpimarratu du. Erandion Bizkai, Araba eta Gipuzkoako udalerririk kontrolatuenetako bat dela ere gogorarazi du, Eusko Jaurlaritzaren sareko bi neurketa-estazio finko baititu. Era berean, airearen kalitatea etengabe kontrolatzen dutela eta jarduteko protokolo argiak ditzutela nabarmendu dute. Hala ere, txostenak sakon aztertuko dutela iragarri dute.

BERRI LABURRAK



Korrikarako berotzen joateko hainbat hitzordu

2 4. Korrika martxoaren 29ko goizaldean igaroko da Txorierritik. Baina aurretik berotu beharra dago, eta

horretarako hainbat ekintza antolatu dituzte hurrengo asteetarako bailara osoan zehar.

6, barikua

16:00 **Arropa salmenta eta kuestazioa** Zamudioko Eskolan
18:30 **Mogumbo Brass Banda Leizaola** Lehendakaria plazan
ZAMUDIO

11, eguaztena

18:30 **Bertso saioa** Itallen bertso eskolaren eskutik. Kultur Birikan **DERIO**

15, domeka

12:00 **Aurkezpena** Erandiogoikoetik Asuara Korrika jaitsiera eta Asuan Korrika Festa: trikitilariak, Berakatz taldea, umeentzako tailerrak, txona eta pintxoak **ERANDIOGOIKOA**

19, eguena

Atharratzera joateko autobusa Izen ematea Txepetxa

21, zapatua

Korrika bazkaria Berakatz taldeak girotuta **SONDIKA** Izartza jatetxean

22, domeka

Supituko antzerki inprobisatua **SONDIKA**

27 eta 28

Arte eta kultura asteburua Korrika txikia. Loiuko ikastetxe guztien parte-hartzearekin **LOIU**

27, barikua

Korrika txikia Txokolatada, umeentzako tailerrak, txosna eta barbakoa plazan **LARRABETZU**

Zure esku umeentzako jolasak **SONDIKA** Igerilekuko plazan eta Ludotekan

18:30 **Korrika girotze beroketa** Eskolan hasita, herri barruko markagailuak jarriko dira KM bakoitzean, herriko elkarteen parte-hartzearekin. **ZAMUDIO**

21:00 **Bertso afaria**. Lagatzuren eskutik Baserri Antzokian **DERIO**

28, zapatua

18:30 **Fruiztariak txaranga** eta talo jana **LEZAMA**

Afaria Hori Bain eta "talentu gaua" **LARRABETZU**

29, domeka

05:00 **Korrika txorierrin zehar**

Korrika pasa ondoren: **Txokolatada** **ZAMUDIO**

10 hobekuntza eta 210 lagunren parte hartzea

Lezamako Udalak amaitu du aurrekontu parte hartzaileetako prozesua. 210 herritarrek parte hartu dute gazte eta helduen artean. Guztira 90.000 euro bideratuko dituzte bi zatitan banatuta. Hamar dira 2026an aurrera eramango dituzten proiektuak, 70.000 euro helduen proposamenetarako bideratuko dituzte eta 20.000 gazteenentzako. Helduen kasuan, hurrengokoak dira gauzatuko dituzten sei proiektuak: BI-737 errepideko oinezkoentzako pasabideen argiztapena hobetzea Iberres eta La Cruz artean, Udaletxearen atzean dagoen parke estaliaren alboak jartzea eta kiroldegiko aldagelen gunean estalkia jartzea, La Cruz umeen parkearen argiztapena hobetzea, Kultur Aretoan film-proiektzioak egitea eta Lapiko parkean iturri bat jartzea.

Gazteen kasuan, lau proposamenek lehentasuna izan dute, aisialdian eta topaketa-guneetan zentratuta: Urteko beste garaietan ere erabilgarri izango den Gabonetako PIN antzeko jolas-parke bat jarriko dute, kanpoan film-proiektzioak egingo dituzte, Gaztelekuan bozgorailuak eta seinaleak instalatuko dituzte, eta iturri bat jarriko dute Gozo Gozo Lohitzunen inguruko plazan.

Udaletik aurrekontu parte hartzaileek izandako "erantzun positiboa" nabarmendu dute. Prozesua "baliabide egonkor gisa" finkatu dela diote eta herritarren parte-hartzea ziurtatzen duela udal kudeaketan. "Prozesu honek gastu publikoa ekintza zehatz eta ikusgarrietara bideratzen laguntzen du, herritarrek identifikatutako lehentasunekin bat etorri".



ZOZKETAK

Aikorren komunitatearen parte izateak saria du. Hilero hainbat sarrera eta opari zozkatuko ditugu gure irakurleen artean. Argibide gehiago: aikor.eus/zozketak



Hontza Museorako sarrerak

Hilero Hontza Museorako sarrera bikoitza!

Zozketan izena emateko azken eguna: **martxoak 15**



JumpYarderako sarrerak

Hilero hilero JumpYarderako sarrera bikoitza!

Zozketan izena emateko azken eguna: **martxoak 15**



Errigora

Errigorako produktuen bi saski!

Zozketan izena emateko azken eguna: **martxoak 15**



Loraldia Festibala

Hainbat ikusizunetarako sarrera bikoitzak!

Martxoak 10	1tz4l 3t4 p1ztu
Martxoak 11	Ahots kordak
Martxoak 12	Ikimilikiliklik Vol.2
Martxoak 15	Verde Prato
Martxoak 16	Lotaldia
Martxoak 19	Nogen
Martxoak 20	Potasio film laburra
Martxoak 22	Ahaztu nirekin
Martxoak 26	Maitasuna ez da nahikoa



Supersinsorgaren urte beteko harpidetza

Hainbat abantaila La Sinsorga kulturgune feministan

Zozketan izena emateko azken eguna: **martxoak 15**



Eguneko menua bi pertsonarentzat BASERRI ANTZOKIAN

Hilero bi lagunentzako menua zozkatuko dugu zuzenean gure aikorlagunen artean. Ez da beharrezkoa izena ematea.

AURREKO HILABETEKO IRABAZLEAK:

Hontza Museorako sarrerak:

Gorane Fernández Beitia

JumpYarderako sarrerak:

Loli Grillo Fernández

Hazim Hikmet liburua:

Mabel Lorenzo Pérez

Galbahe diskoa:

Belen Gana Gaztañaga

Baserri Antzokian eguneko menua:

Karmele Buldain Mikeo

SORLEKUA

Ikusi hemen
bideoklipa*Orainaren*

Matxinada talde txorierri-tarrak *Orainaren* bere azken kanta plazaratu du, bideoklip eder batez lagunduta. Zinema ikasketak egin dituen Oier Bravo taldekideak zuzendu du obra: “Oso argi geneukan bideokliplean Txorierriko aurpegiak agertu behar zirela. Aktore gisa Maddi Lasa eta Javier

Barrena ditugu; biak zamudioztarrak dira, gure lagunak, eta antzerkian aritzen dira”. Sondikako Izartza auzoan eta Urkiolako Atxarteko harrobian egin dute grabaketa eta Jose M^a Satrustegi etnografoak Zumaian jasotako Anbotoko Mariri buruzko kondaira bat berridatzi eta gaurkotu dute: “Proiektu berri honen ardatza tradizioa berritzea da, ulertuta

tradizioa etengabeko aldaketan dagoen zerbait dela, eta ez dugula partekatzen tradizioak aldagaitzak mantendu behar direla dioen ikuspegia”.

**Matxinada**

matxinada.eus



Zure sormen-lana gurekin partekatu nahi baduzu, idatzi aikortxori@aikor.com helbide elektronikora.

GUREAN IZAN DA

“Helburua zen ikusezintasuna lantzea, baina umeek erabaki dute norabidea”

OLATZ OVEJERO ALFONSO
Zinemagilea



T MIKEL REINA BARROS ANER MENTXAKA ALVAREZ

Sortzaile nafarrak ‘Ikusi makusi’ filma sortu du Larrabetzun, Geuretik Sortuak proiektuaren baitan. Otsailaren 20an aurkeztu zuen herrian. Bere tesiko euskal emakume zinemagileen ikusezintasuna ardatz hartuta, zinemagile bilakatu ditu Larrabetzuko eskolako umeak.

Udalbiltzaren Geuretik Sortuak proiektuaren baitan eraman duzu filma aurrera, askotariko euskal sortzaileentzako babesa izaten ari da azkenaldian.

Euskal emakume zinemagileen ikusezintasunaren inguruko tesia amaitzen nengoen, baina ikerlari alde horretatik kanpo, beste esparru batera eraman nahi nuen, nire alde zinemagilean ere landu ahal izateko. Nire desioa zen umeekin edo gazteekin gai hau landu ahal izatea. Ikuspuntu berezia dute, etorkizunera gehiago jotzen duena. Geuretik Sortuak babesa emateaz gain, oso polita iruditzen zitzaidan Euskal Herriko edozein herritan garatu ahal izatea. Are gehiago

kontuan izanda ez nekiela zein tokatuko zitzaidan. Nire buruan herri txiki bat irudikatzen nuen, artea batzuetan hirietan bakarrik geratzen delako.

Eta Larrabetzu egokitu zitzazun. Mapan kokatzen zenuen?

Egia esan, izena bai ezagutzen nuen, baina ez nuen kokatzen. Hain zuzen, egin nuen lehendabiziko gauza izan zen. Nire buruan neukan herri txiki horretarako tamaina egokia duen herria da. Bizkaiera ezagutzea ere asko gustatu zitzaidan, eskolan batez ere. Orain, adibidez, badaikit zer den maiukia, nire hiztegira batu dut. Hasieran arraroa egiten zitzaidan, baina orain naturala egiten zait, belarria

egin dut hilabete hauetan. Euskal Herriko aniztasunaren isla da eta ederra da benetan.

Zelan bizi izan duzu egonaldia?

Oso polita izan da. Hasieran ikastaroak egiten genituen eskolako umeekin. Helburua zen ikusezintasuna lantzea, baina txikienean erabaki izan dute filmaren norabidea. Haiek sortu dute istorioa. Zailantza handienetako bat adina izan zen. Ume txikien naturaltasun eta inozentzia hori mantendu nahi genuen, baina aldi berean nagusiagoek ideiak garatzeko eta argitzeko erraztasun handiagoa dute. LH1eko klasea aukeratu genuen, eta hautaketa aproposa egin dugu. Hasieran,



Larrabetzuko umeak Ikusi-Makusi filman.



joan-etorriak egiten nituen Iruñetik, as-
tean bitan egiten genuen ikastaroa. Gra-
baziorako egonaldi luzeagoa egin nuen
uztailean. Azkenean, Larrabetzuko his-
toria eta istorioak ezagutu nahi nituen
filmean sartu ahal izateko. Akerra, esate
baterako, figura garrantzitsua da herrian,
nortasuna ematen dio.

Zer aurkitu duzu Larrabetzun?

Maripiren etxean geratu nintzen eta oso
eskertuta nago. Oso jatorra eta eskuza-
bala izan zen herritar guztiak ezagutze-
rakoan behar nuena laguntzeko prest
agertu zen. Herria ezagutzea zoragarria
izan da, batez ere herritarrak, askota-
rikoak gainera, txikienetatik nagusie-
netara. Herria oso irekia izan da, beti
laguntzeko prest. Umeek asmatu zuten
istorioa basoan bizi den emakume baten
inguruan da. Horretarako, Larrabetzuko
herrigunea bakarrik ez, inguruak ere
ezagutu behar izan nituen, Bizkargi edo
Gatzelumendiko bunkerra.

Zelangoa izan da sormen prozesua?

Hasieran tailerrak egin genituen umee-
kin, film bat zer den, zelan egiten den,
zenbat kamara dauden... Film bat pro-
iektatu genuen. Hau da, erreminta eta
aukera guztiak eskaini nizkien, gero
haiek zer nolako filma egin nahi zuten
erabakitzeko. Baldintza bakarra izan da
emakumeen ikusezintasuna landu beha-
rra zegoela. Horregatik, ikusezintasuna
zer den landu behar izan genuen, kon-
tzeptu abstraktua delako. Oso polita izan
da ikustea zer nolako ideiak etortzen zi-
tzaizkien burura. Adibidez, emakumee-
kin lotuta, beraien familiako emakumeen
inguruko lan bat idaztea eskatu genien.
Nire tesiaren azken ondorioa izan da

emakume zinemagileek ikusezintasuna
pairatu dutela, baina ikusezintasunaren
alderik gogorrena da inoiz sortzera heldu
ezin izan direnak, ez dituztelako baldin-
tza teoriko eta praktikorik izan. Beti jar-
tzen dudana adibidea nire izeba-amonare-
na da. Txikitan zaintzen nindunean ipuin
ikusgarriak kontatzen zizkidan, idazle bi-
kaina izan zitekeen, baina ez zuen inoiz
aukerarik izan liburu bat idatzi ahal izate-
ko. Ezin zuen ezta imajinatu ere egin.
Azkenean, emakume ikusezinak gure
inguruan, familian, daudenak izan dai-
tezke. Behin, zinema eta ikusezintasuna
zer diren argi izanda, brainstorming be-
zalako bat sortu genuen apurka filma
sortzeko. Gure lana ideiak lotzea zen.
Azkenean filman kontatzen da ume talde
batek basoen bizi den emakumearen bila
joaten direla. Ondoren, bost ume auke-
ratu genituen eta lau egunetan grabatu
genuen filma.

Nolakoa izan da umeekin lan egitea?

Oso polita. Horrelakoetatik gehien gus-
tatzen zaidana da oso gertutik lan egi-
ten duzula protagonistekin, ikastaroez
pila bat gozatu nuen. Gehien baloratzen
dudana da jendearengana hurbiltzea eta
haiekin hitz egin ahal izatea. Azkenean,
horrekin geratuko edo oroituko naiz etor-
kizunean. Orain arte helduekin egin dut
lan batez ere, beraz, beste esperientzia bat
izan da umeekin lan egitea. Esperientzia
bikaina izan da, ilusio ikaragarria dute-
lako eta oso hurbilekoak direlako. Aldi
berean, zaila izan da, batez ere grabaketa.
Dibertigarritik ere badauka, ume bateri
zaila delako azaltzea ez duela aurrean
duen kamara handira begiratu behar.
Zalantza barik errepikatuzko modukoa
esperientzia izan da.

Beraz, pozik geratu zara emaitzare- kin? Ez bakarrik filmarena, proze- suarena ere bai.

Bai, ikaragarri. Bai izan dudala urduri-
tasun puntu bat jakiteko ikusleak zelan
hartzen duena filma. Puntu esperimetal
bat ere badauka, orduan ulertu beharra
dago. Material asko nuen esku artean,
prozesu guztia bi aldiz bezala bizi izan dut
eta aukeraketa bat egitea batzuetan ez da
erraza izan. Abenduan defendatu nuen
nire tesia eta filma urtarrilaren 5ean amai-
tu genuen. Ondorioz, bi lanak elkarrekin
aurkezteko aukera ere izango dut eta ilu-
sioa egiten dit. Ikusezintasunaren gaia
aurkezteko bi modu desberdin dira azken
batean. Ondorioa bera da: emakume asko
izan dira ez dutenak aukerarik eduki ezta
ikusezinak izateko ere, ez dutelako bal-
dintzarik izan sortzeko.

Otsailaren 20ko estreinaldian izateko aukera izan zutenek zer esan dizute?

Lehenengo filma landu dugun klaseko
umeen eta familien aurrean aurkeztu ge-
nuen eta ondoren herrian. Erantzuna oso
ona izan da, oso pozik amaitu dugu, be-
netan berezia izan da. Herritarrak identi-
fikatuta sentitu dira. Gehiagotan proiektat-
zeko komentatu genuen, emozionatu
egin nintzen eta dagoeneko umeak faltan
botatzen ditut.

Eta estreinaldira joan ezin izan zire- nentzat, zelan azalduko zenieke zer- taz doan filma?

Zinema pedagogiko kolektiboaren ba-
rruan kokatuko genuke, gidoia umeekin
batera idatzi delako. Umeen abentura fil-
ma bat da, basoan bizi den emakume ba-
ten bila joango dira. Gogoetarako tartea
ere bada. Misteriorik ez zaio falta. ●



T MIKEL REINA BARROS

A ANER MENTXAKA ALVAREZ

AINARA ANDUEZA REIJA
AEK Txepetxa euskaltegiko ikaslea

Zaila bai, baina ez ezinezkoa

Euskarak, eta euskaldunek, bere hizkuntza eskubideen aurkako oldarraldia bizi dutenean oraindik badago esperantzako bidea. Hain zuzen ere, beti entzun izan da euskara ikastea oso zaila dela eta horrek euskalduntzea zailtzen duela. Ainara Andueza Reijak aitortu du ez dela “ikasteko hizkuntza erraza”, baina hizkuntza guztiak bezala. Bost urtetan C1 maila, hau da, erabiltzaile aditua izatea lortu du.

Lugon jaiotakoa da, Portugaleten bizi da, Zamudioko Parke Teknolagikoan egiten du lan eta Derioko Txepetxa euskaltegian ikasten du. Harreman berezia dauka Euskal Herriarekin, familia Nafarroan dauka, aitaren aldetik, 33 biztanle dituen Anotz herrikoa da, zehazki. Bertan igarotzen zituen gaztetan udak eta euskal kulturarekin betidanik “lotura handia” izan duela dio. Batez ere bi lehengusuk erakusten zizkieten oinarritzko hitz solte batzuk. Euskal abestiak ere entzuten zituen eta horrela hiztegia pilatzen hasi zen: Belarriprest izaten.

“Beti sentitu izan dut nire barruan euskara ikasteko gogo eta ilusio hori”

“Beti sentitu izan dut nire barruan euskara ikasteko gogo eta ilusio hori. Txikitatik esaten nuen erdi galiziarra, erdi euskalduna nintzela. Ezin dut ulertu

kultura baten parte izatea bere hizkuntza ezagutu barik, horregatik ikasi nahi nuen euskaraz hitz egitera”.

Iruñean osatu zituen ikasketak eta duela 5 urte joan zen Portugaletara bizitzera. “Euskal Herrian bizita, beharrezkoa ikusten nuen euskara jakitea”. Argi dauka. Euskara, beste gauza askoren artean, integrazioarako bidea ere badelako. “Nire bikotearekin hitz egiten dut euskaraz, bera ere euskaldun berria da, baita kuadrillarekin batzuetan ere. Hala ere, oraindik kostatu egiten zait ni neu izatea euskaraz hitz egiterakoan, ez

daukat arintasun bera, adibidez, txantxak egiterakoan”.

Euskara “oso polita” iruditzen zaiola dio eta horregatik betidanik “inbidia” sentitu du. Orain arte. “Ilusio itzelarekin” ekin zion, eta hizkuntza guztiak bezala, oinarritzko hitzekin hasi zuen bere bidea: koloreak, zenbakiak, aste-ko egunak... “Nire pentsatzeko modua aldatu behar izan nuen, euskaldunek bestelako pentsaera bat dutelako. Egiturak ere desberdinak dira, ez daude beste edozein hizkuntzatan”. Baina zein izan da gehien kostatu zaizuna? “Aditzak, zalantzarik gabe”. Aditzak egituratu behar dira eta aldagai askoren arabera moldatu. “Gainera batzuetan badaude batzuk oso gutxitan erabiltzen direnak”.

Lehen urtean A1 eta A2 atera zituen, bigarrenean B1 maila, hirugarrenean B2 eta iaz C1 mailari ekin zion. “Nire helburua beti izan da euskaraz hitz egin ahal izatea eta eguneroko elkarrizketa batean euskaraz eroso sentitu ahal izatea”. C1 lehengo EGaren (Euskararen Gaitasun Agiria) baliokidea da. Lehendabiziko saiakeran ahozkoa arte gainditu zuen, baina aurrez aurrekoa errepikatu behar

“Ezin dut ulertu kultura baten parte izatea bere hizkuntza ezagutu barik”

izan zuen. 2025eko abenduan lortu zuen guztiz gainditzea.

“Ikasturte hasiera bakoitza gogorra egiten zitzaidan maila bakoitzaren arteko jauzia handia delako. Baina egia da ez dela ikasteko metodo klasiko eta tematia erabiltzen, eta horrek asko laguntzen du, azkenean konturatu barik ikasten duzu”.

Baina Anduezak ez du oraindik bere bidea amaitu, euskara ikasten jarraitzen du. “Batzuetan azterketekin itsutu egiten gara, gainditu nahi horrekin, baina nik beti argi izan dut nire helburua ez zela titulua lortzea, euskara egunerokoan erabili ahal izatea baizik”. Bideaz gozatu duela dio, “oso gustora” aritu izan dela eta klaseetatik kanpo ere “familia txiki euskaldun bat” sortu dutela: “Nahi izan ez gero oso erraza da euskal kulturaren murgiltzea”.

Portugaleteko Euskaltegian hasi zuten ikasketak eta orain Derioko Txepetxa Euskaltegian dago, eta beste AEK-ko egoitza batzuekin alderatuta, “beste hizkuntza bat” ezagutzen ari dela dio: bizkaiera. “Giro askoz euskaldun zaharragoa dago eta hasieran kostatu egin zitzaidan apur bat egokitzea, hemen ere batez ere aditzen kontuengatik izan zen”. Aditz madarikatuak, zu zeu irakurle ere arazoak izango zenituen eta guzti. Hala ere, “oso eskertuta” dago Derion beste euskara bat ezagutu eta entzuten ari delako.

Klaseetatik kanpo ere euskal kulturaren murgildu nahi hori nabaritzen zaio. Euskal irratia eta musika entzuten du, euskarazko filmak ikusi izan ditu eta bertsolaritza saioetara eta guzti hurbildu izan da. Hau da, euskal kontsumitzailea da. “Hori izan da beti nire nahia”.

Bere istorioa kontatzen duenean, jendea “harrituta” geratzen dela dio, “ez bakarrik Lugokoa izanda euskara ikasi dudalako, oso denbora gutxian lortu dudalako ere bai”. Bost urtetan euskaraz elkarrizketa bat egin ahal izatea “meritu handia” daukala esaten diote. Ezinezkoztat jo dute eta guzti. ●

Ate irekiak zure Batxilergoa edo Lanbide Heziketako Zikloa ondo aukeratzeko

Batxilergoa

- Martxoak 11 eta 25

Lanbide Heziketako Zikloak

- Martxoak 25; Apirilak 20, 21, 22 eta 23

Eskaneatu eta erreserbatu zure bisita

POLITEKNIKA TXORIERRI

ZEOS Programa: osasuna eta ongizate digitala ehuntzen

Teknologiaren presentzia gero eta handiagoa da gure eguneroko bizitzan, bereziki ume eta nerabeen artean. Testuinguru horretan, ZEOS Programak –Zentzuzko Erabilera eta Osasuna Sustatzen– herriko familiei laguntza eta tresnak eskaintzen dizkie, pantailen eta sare sozialen erabilera arduratsua eta osasungarria sustatzeko.

Aurreko edizioetan landutako edukien artean honako gai hauek nabarmendu ziren: mugikorraren erabilera integrala, nerabezaroan osasun mentalaren zaintza, sare sozialen arriskuak eta erabilera egokia, eta nerabezaroa ulertzeko gakoak. Saiok oso harrera ona izan zuten, familiek informazio praktikoa eta hausnarketarako espazioa eskertu baitzituzten.

FAMILIAREN PAPERA, OINARRIZKO ZUTABEA

Teknologiarekiko harreman osasuntsua ez da bat-batean lortzen; txikitatik eraikitzen den prozesu bat da. Guraso eta hezitzaileok gure seme-alaben lehenengo ereduak gara. Umeek ikusten dute nola erabiltzen dugun guk teknologia: afarian mugikorra-ekin egotea edo elkarrizketa erdian mezu bati erantzutea isileko irakaspenak dira.

Mugak ezartzea txikitatik ez da autoritarismoa, baizik eta babesia. Umeek egiturak eta erreferentziak eskatzen dituzte.



PAWEŁ KUCZYŃSKI

Arauk ezartzea –pantailarik ez jatordue-tan orduan, mugikorrak ez logelan gauez, denbora mugatuak– eta zergatia azaltzea funtsezkoa da. Umeei ulertarazten zaie-nean pantailek lo hartzea zailtzen dutela, araua zentzuzkoa bilakatzen da.

Baina hitzak baino garrantzitsuagoak dira ekintzak. Gure ereduak koherentea izan behar da. Familian uneak sortzea non teknologia bigarren mailara pasatzen den –batera elkarrekin jolastea, elkarrizketak, kanpora ibilaldiak– erakusten die gazteei bizitza pantailez haratago dagoela.

KONPROMISOA ETA KOMUNITATEAREN INDARRA

Iazko esperientzia arrakastatsuen ondoren, aurten programa apirilaren bigarren hamabostaldian izango da. Orain arte Lehen Hezkuntzako familiei zuzenduta egon bada ere, aurten eskaintza Haur Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako familietara ere zabalduko da.

Programaren arrakasta familia bakoitzaren konpromisoan dago. Saio guztietan parte hartzea ezinbestekoa da, eduki guztiak elkarrekin lotuta baitaude eta progresio batosatzen baitute. Familia gehiagok parte hartzen duenean, komunitatearen eragina handiagoa da: esperientziak partekatzen dira, euskarri-sarea sendotzen da eta aldaketa errealak lortzen dira herrian.

ZEOS programa Altxaburua Txorierri eta herriko Guraso Elkarrekin elkarlanean antolatzen da. Ongizate digitala ez da norbanakoaren arduraren soilik; familien, hezkuntza-eragileen eta komunitate osoaren lankidetzaren eskatzen du.

Helburua argia da: familiei tresnak eskaintzea seme-alabak ingurune digitalean modu seguru, kritiko eta osasuntsuan laguntzeko. Zure inplikazioak eragina dauka. Elkarrekin, osasuna eta ongizate digitala ehuntzen dugu.

Isiltasunetik egindako historia

Txorierriko emakume askok ez dute ize-nik liburuetan, baina bai arrastoa gure egunerokoan. Isilik, lanetik eta zain-tzatik, herriak eraiki zituzten. Martxoaren 8a, isiltasun horri hitzak jartzeko eguna da.





MIHILUZE 2026

MIHILUZEKO TXAPELDUN IZAN NAHI DUZU?

Lehen Hezkuntzako 5-6 mailakoa zara?

EUSKARAZ JOLASTU NAHI DUZU?

IZENA EMAN: Txorierriko ludoteketan

NOIZ: martxoaren 8ra arte



Oharra: finalurrekoetan edo finalean umeren batek ezingo balu parte hartu, dena delako arrazoiarengatik, zerrendan hurrengo geratu den bikoteak hartuko luke parte lehiaketan, eta bikote horrek jarraituko luke lehiaketa.



TXORIERRIKO MANKOMUNITATEKO UDALAK

DERIO | LARRABETZU | LEZAMA | LOIU | SONDIKA | ZAMUDIO

www.txorierrri.eus

Ziberjazarpen sexista

Teknologia digitalak (sare sozialak, mezularitza aplikazioak, jokoak) erabiliz emakumeen eta sexu-orientazio edo genero-identitateagatik baztertutako pertsonen aurka egiten den jazarpena da. Modu ezberdinetan egin daiteke, sealioning, flameo, funada eta beste batzuk.

Sealioning-a: Etengabe kuestionatzea, galderak eta komentarioak eginenez, solaskidea probokatzeko. Indarkeria mota honetan, oso bereizgarria da jazarleak une oro tonu atsegina, zibikoa eta adeitsua izatea, sinestazteko ez dela ari zu probokatzeko ahaleginetan.

Flameatzea: Mezu erasokorrak edo iraingarriak bidaltzea.

Funantzea: Pertsona bat edo talde bat gutxiestea publikoki.

Doxxing-a: Biktima baten datuak biltzea eta sarean argitaratzea haren baimenik gabe.

Slutshaming-a: Emakume bat kritikatzea edo iraintzea, jokaera edo janzkera sexualizatuagatik, edo bere sexu-desira lotsarik gabe adierazteagatik.

ITURRIA: ZIBERINDARKERIEIEN GIDA. EMAKUNDE

TXORIERRIKO BERBAK

Aratuste globalizatuak?

Egunotan aratusteez gozatzeko modua euki dogu. Askok izan dira lotsak alde batera itxi eta moztu jantzita ibili diran txorierritarak. Bizkaiko herri batzuetan aratuste tradizionalak dagozan arren Txorierrin ez daukagu holangorik.

Ohiturak eta joerak bardintzen doazen lez, egunak eta sasoiak izentatzeko darabilguzan berbak be barditzen dabilz. *Inauteriak*. Berba hori nagusitu da gure kale, plaza eta etxeetan. Batzuek

zalanza egiten dabe: zelan idatzi, *inauteriak* edo *ihauteriak*? Biak dira zuzenak eta Euskaltzaindiaren hiztegiak be jasotzen ditu, baina *ihauteri* sarreraren ondoan "Ipar." (Iparralde) marka ikusiko dogu. Gauza bera pasetan jako *ihaute* berbeari. Halandaze, esan geinke berba zuzenak dirala, baina ez egokiak. Txorierrin ez, behinik behin. Hiru horreez ganera, badago beste berba bat hiztegitan eta gure adinekoen aho-bihotzetan bizi dana: *aratuste(ak)*.

Mendebaldeko berba eder hori sano galdu ta dago Txorierrin. Derion eta Larrabetzun behintzat entzun daiteke, *aratoste* eta *aratiste*, hurrenez hurren. Berreskuratu daigun!

Aratuste aurreko domekan basora joan eta txarriak (txitxi-burduntzia) jateko ohi-tura egon da, eta herri batzuetan oraindik be badago. Izen bi daukaz gure eskualdean: *Sasi martxo* eta *Kanpo martxo*. Uribe Kostan eta Mungialdean, barriz, *basaratoste* esaten deusie.

“Nire bizitzak beti eraman izan nau kanturantz”

ITSASO ARRIETA GOIRI
Kantu irakaslea

Badira eskolan txikitan entzun edo ikasi eta ahazten ez ditugun kanta. Adibidez, nork ez du ezagutzen ‘Katuen testamentue’? Urteak pasa daitezke abestu barik, baina gogoratzen jarraitzen dituzu. Inork gutxi baino hobeto daki hori lezamarrak, kantuen inguruan hazi eta hezi baita. Irakasleei irakasten diena da.



T MIKEL REINA BARROS

ANER MENTXAKA ALVAREZ · ITSASO ARRIETA GOIRI

Nondik datorkizu musikarekiko eta kantugintzarekiko pasio hori?

Etzetik. Gurean asko kantatu izan da beti, amaren zein aitaren aldetik. Gainera, biak ala biak beti ibili dira euskararen, ikastolaren edota euskal kulturaren inguruan. Beraz, nire ingurua beti izan da horrelakoa. Txikitatik kantatzen genuen gurasoekin, bost neba-arreba gara eta domekero mendira joaten ginenean, abesten joaten ginen beti.

Bakarrik gutxi batzuek lortzen dutena lortu duzu: afizioa ofizio bilakatzea.

Nire bizitza da. Ni kantua eta kantugintza naiz. Askotan pentsatu izan dut: badirudi nonbait idatzita zegoela kantugintzaren munduan bizi behar nuela. Denak eraman izan nau kantuen mundura, beti izan dut bidelagun.

**“Denak eraman
izan nau kantuen
mundura, beti izan
dut bidelagun”**

Ibilbide luzea daukazu, zer gogoratzen duzu mugari bezala?

Derion, Labayru Fundazioko udako ikastaroak egiten nituen, eta bertako giro euskalduna gogoratzen dut. 15 egunez elkartzen ginen bertan, gai asko jorratzen genituen, adibidez, dialektologia. Horrela, euskalkien munduan murgiltzen hasi nintzen apurka-apurka. Umetan ere askotan joaten ginen Iparraldera, gurasoek lagunak zituzten

bertan, beraz, ohituta nengoen bes-telako euskalkiak entzutera. Gainera, udako ikastaroetako bost mailak amaitu nituenean, gaztetxoentzako ikastaro batzuk antolatzen hasi ziren eta kantuen inguruko tailerra egitea proposatu zidaten. Nire kezka nagusienetakoa betidanik izan da belaunaldien arteko transmisioa, eta nik bide horretako bitartekari izan nahi nuen.

Nire hurreko inguruan ume txikiak irakasleak nituen: nire ahizpetako bi eta lehengusinak. Sarri esaten zidaten ez zegoela materialik, eta, halako batean, Labayruko Adolfo Arejitari esan nion: “Tradizioko ume kantuen inguruko materialen bat argitaratu beharko genuke, eta herriarena dena berriro ere herriari itzuli”. Euskara batuaren aldeko egoera hartan, bizkaierak ez zeukan indar handirik eta gehiena batuan argitaratzen



Arrieta, zamudioko ikasleekin eta metodorako kantuak estudioan grabatzen.



zen. Edukia eta materiala bazegoen; baina transmisioa egin beharra zegoen gauza ederrak baikenituen. Buru-belarri jarri ginen horretan, eta eskuartearen genuen kantu sorta ikusita, berehala jarri zituen Labayruk proiektua aurrera eramanez ahal izateko baliabideak: diru laguntzak eskatu, Ikastolen Elkartearekin harremanetan jarri... Hortik ateraz zen 'Katuen testamentue', pila bat ikasi nuen prozesu horretan. Denetarik ukitu eta xurgatu nuen, Labayruko artxiboetatik hasi, bestelako materialera joanez eta landa eremura arte helduz. Geroago, Labayruren eskutik, hainbat ikastaro eman nituen euskal lurraldeetako herri askotan. Ostean, Udako Euskal Uniber-

tsitatetik ere deitu zidaten haurreskole-tako hezitzaileentzat haurren kantuen ingurukoak azaltzeko. Hainbat urte eman nituen horrela; niretik eman egiten nuen, baina jaso ere, asko jasotzen nuen. Ikaragarri ikasi nuen ibilbide horretan guztian.

Hainbat proiektutan aritu zara, agian entzutetsuenetako bat 'Katuen testamentue' izan daiteke.

Askok ikasi nuen, eta gustura gainera. Hasieran kosta egin zen proiektuan sinestea, baina aurrera ateratu genuen. Eskertuta nago Labayruk konfiantza osoa jarri zuelako gudan eta materiala gure esku jarri izanagatik.

Txorierrir eskualdera are gehiago hurbilduz, 'Haran handiaren doinuak' proiektuan ere parte hartu zenuen.

Alberto de Abajo 'Zoro' larrabetzuarrak deitu zidan Erandioko kantu zaharrak biltzeko eta aukeraketa bat egiteko. Proiektu berria izan zen niretzat, baina hemen ere sano gustura aritu nintzen.

Gaur egunera gehiago hurbilduz, lehendabiziko Loraldia Eskolako irakasleetako bat izan zinen, Lekeition.

Egun oso politak izan ziren, hainbat diziplina lantzen ziren eta ni kantugintzaren ingurukoak azaldu nituen. Patxo Telleriak, Iratxe Fresnedak edota Ander Lipu-



INSUKALDEAK
 insukaldeak.com

BILBAO
T. 94 402 82 54

Lehendakari Aguirre 175-177.
 48015 Bilbao

DERIO
T. 94 656 85 69

Txorierriko etorbidea 9. Ed. Arteaga.
 48160 Derio



**NAHI
 DUZUN
 SUKALDEA**

25 urteko esperientziak bermatzen gaitu.
 Doako finantzaketa.



Liburuaren Durangoko Azokako aurkezpena, Marie Hirigoyen Bidart eta Pantxix Bidart Plarekin batera.

sek ere parte hartu zuten lehen urte hartan. Ikasleak 18 eta 25 urte bitartekoak izan ziren eta barruan zuten kultura egarri itzela hasieratik nabaritu nuen. Azken batean, horrelako ikastaroetara gustuko duenak baino ez du izena ematen, baina hala ere, harritu ninduen gazteen jarrerak: jakin-min ikargarria zuten. Gogoan daukat ordu askoko ikastaroa izan zela, eta hala ere oraindik gehiago nahi zutela. Lehen aipatutako transmisioaren garrantziari erreparatuta, asko poztu ninduen parte-hartzaileen jarrera bikainak eta gogo handiak. Poztekoa da horrelako proiektuak oraindik ere aurrera eramaten jarraitzen dutela, eta asko pozten naiz lehen urte horretarako deitu zidatelako.

Gelditu barik zaude, eta orain, 'Musikaren Giltzak' liburua aurkeztu duzu. Liburua ere aspaldiko jardunaldi batzuetatik dator. Donostiako Miramar Jauregiko musikari buruzko jardunaldi batzuetako Marie Hirigoyen Bidarten hitzaldia entzun nahi nuen, izena eman eta bertara joan nintzen. Jende asko egon zen, eta, hitzaldia amaitu eta gero, gaueko ordu txikietara arte geratu nintzen berarekin hitz egiten. Elkarri esan genion "harreman hau ezin dugu hemen utzi". Ordutik harremana mantendu dugu kantua eta musika ardatz hartuta, eta horrela liburura arte iritsi gara. Gu gaz batera, Pantxix Bidart Pla musikaria

“Nire kezka nagusienetakoa betidanik izan da belaunaldien arteko transmisioa”

eta Asisko Urmeneta ilustratzailea izan dira. Urteetan asko hitz egin dugu gure kantarako zaletasunaz. Musika metodo bat egiteko gogoia zuen Hirigoyenek, umeei modu erakargarriagoan irakasteko metodoa. Nik Euskal Herriko kantuetan oinarritutako metodoa izan beharko zuela gehitu nion. Euskal tradizioak baditu kantu asko musikaren irakaskuntzarako oso erabilgarriak. 'Katuen testamentue' egiten geundenean, Kodaly Institutuko irakasle bat etorri zen gure proiektuaren berri izatera. Berak esan zigun bazirudiela musika irakasteko metodo perfektu bat geneukala esku artean. Kodaly metodoak notak pixkanaka sartzen ditu eta harrituta geratu zen euskal kantugintzan nota kopuru desberdinetako kantuak ditugulako. Iltzatuta geratu zitzaidan haren iruzkina duela 35 urte. Orduan, Hirigoyenen proposamena izan nuenean argi izan nuen euskal tradizioko kantuekin osatu behar genuela metodoa. Garrantzitsua

izan da guretzat gure herrietako kantuak eta gure tradizio kulturalako kantuak sartzea. Akitania Berria, Euskadi, Nafarroa Euroeskualdetik jaso dugu dirulaguntza, eta, egia esan, gehiago kostatu izan da dirulaguntzak lortzea, kantuak biltzea baino.

Liburua erabilgarri eta ludikoa izatea nahi izan duzue. Zelan lortzen da hori? Hirigoyenek hasieratik argi izan du zelan nahi zuen musika transmititu, urte askotan musika eskolak eman ditu, orain, adibidez, Baionako Maurice Ravel Kontserbatorioan dago irakasle. Beraz, esperientzia handia dauka musikaren irakaskuntzan eta nik ere nirea partekatzen nion herri musikaren ikuspegitik. Ikusten genuen zerbait erraza sortzeko beharrezana zegoela, irakasteko eta irakasteko, umek ia konturatu barik ikas dezaten. Esate baterako, metodoan Lego bezalako jokia erabili izan da oso bisuala delako.

Durangoko Azokan aurkeztu zenuen, zelango izan da harrera?

Oso ondo jaso izan du jendeak. Egia da batez ere irakasleei zuzendutako liburua dela, baina edonork erabili dezake. Hala ere, harrera oso ona izan du.

Behin eta berriro aipatu duzu transmisioaren garrantzia, zelan ikusten duzu gaur egun kantugintza?

Ez da erantzun erraza. Denetarik ikusi izan dut. Senarrak esaten dit burbuila baten bizi izan naizela, beti giro oso euskaldunean murgilduta egon naizelako. Etxean euskara eta euskal kultura bizi dut, bertan ekoizten denaren kontsumitzaileak gara. Errealitate oso desberdinak izan daitezke gure herrietan. Bi mundu paralelotan bizi gara, eta zaila da askotan bi munduak batzea. Nire hurreko inguruan bai ikusten dut transmisioa, eta azkenaldian sentsazioa daukat gero eta gehiago dagoela. Ez dakit benetan pentsatzen dudan edo pentsatu nahi dudan. Gazteengan grina eta nahia ikusten dut, Loraldian ere bizi izan nuena. Inguruak ere kontzienteago izatera behartzen gaitu; geureari eutsi behar diogu.

Adibide bat ematearren, Zetak taldeak estadioak betetzen ditu euskal kulturaren gorazarre bat eginez.

Dena dator ondo, denetarik behar da. Lan itzela dago euskal kulturaren alde. Aldi berean, deigarria da horrelako kontzertuetara zenbat jende erantzuten duen, baina gero plaza txikiagoetan

“Argi izan nuen euskal tradizioko kantuekin osatu behar genuela metodoa”

ez hainbestek. Hori da gure herriaren errealitatea. Badirudi Fomo sindromea daukagula, zerbait galtzeko beldurra. Era berean, horrelako makro kontzertuek bestelako euskal kulturako kontsumitzaileak erakartzen ditu, eta dena da beharrezko. Adibidez, irakasleentzako ikastaro asko eman ditut, eta, hasiera batean, ikas orduak osatzeko behartuta etortzen direnak gogoia eta nahia piztera igaro daitezke. Ezagutzak azkenean gehiago ezaugu nahi izatera eramaten zaitu. Baina egia da ez dugula txikitasunera mugatu behar, ahalik eta jende gehienara heltzea inportantea da.

Batez ere txikitako kantak atenporalak dira, hau da, behin ikasita ahaz-

ten ez dituzunak daude.

Bai, horrela ematen du eta, gainera, ikerketak egin izan dira horretaz. Adibide asko ikusi izan dut nire ikastaroetan. Esaterako, gogoratzen dut behin, horrelako saio batean, nire aitaren izeko batengan-dik ikasitako lo kanta bat ikasten genbiltzala, ikasleentzako bat negarrez hasi zela. Kanta ezagutzen bazuen galdetu nion, eta ezetz, ez zuela inoiz entzun. Negar malkotan jarraitzen zuen, zeharo hunkituta. Asteburu horretan bertan, gure izekoa zendu egin zen, eta hiletan neska ikasle hori aurkitu nuen. Beranduago, aitak kontatu zidan neska horren ama lanera joaten zenean, gure izekoak zaintzen zuela besotako ume zela. Seguru lo kanta abesten ziola eta horregatik zerbait mugitu zitzaiola barruan. Ikertuta dago txikitan abestutako kanta bat 30 urteren ostean berriro entzutean zure gorputzak nabaritu egiten duela sentsazio hori; kantak duen boterea da! Musikak edo kantak ahalmen ikaragarria du: sentsazioak eta sentimenduak sortzeaz gain, espazioan zein denboran bidaiatzeko ahalmena eskaintzen dizu. ●

Ekin eta ekin 38 urtez. Publikoa, irekia, guztiontzat.



**TXORIERRIKO UDAL
EUSKALTEGIA**



	B1 Erabiltzaile independentea	B2 Erabiltzaile aurreratua	C1 Erabiltzaile gaitua	C2 Erabiltzaile aditua
Euskaltegiako ikasleen deialdia	Idazmena: Maiatzaren 7tik 9ra Mintzarena: Ekainaren 23tik 27ra	Idazmena: Maiatzaren 7tik 9ra Mintzarena: Ekainaren 23tik 27ra	Idazmena: Maiatzaren 7tik 9ra Mintzarena: Uztailaren 1etik 4ra	Idazmena: Maiatzaren 7tik 9ra Mintzarena: Uztailaren 1etik 4ra
Deialdi irekia	Idazmena: Maiatzaren 7tik 9ra Mintzarena: Ekainaren 23tik 27ra	Idazmena: Maiatzaren 7tik 9ra Mintzarena: Ekainaren 23tik 27ra	Idazmena: Maiatzaren 7tik 9ra Mintzarena: Uztailaren 1etik 4ra	Idazmena: Maiatzaren 7tik 9ra Mintzarena: Uztailaren 1etik 4ra

Matrikulatzeko epea: **apirilaren 9tik 14ra**

Informazio gehiago: www.habe.euskadi.eus



Inauteriak Sondikan (Juanjo Ortiz)





INAUTERIAK TXORIERRIN

Bizitzaz blai!

Otsailean zehar ospatu dituzte txorierri-
tarrek inauteriak. Lehen asteburukoek
eguraldi petralari aurre egin behar izan
zioten. Sondikoztarrek, aldiz, udaberriko
egun eguzkitsu batez mozzorrotu zuten bi-
garren zapatua. Festa gogoia eta giro apar-
ta eskualdeko inauterietan!





Maskarita eguna Larrabetzun (Idoia Andres)





Inauteriak Derion (Derioko Udala)



Ale-afaindegia
M^a Antonia Llodio
Txorierko etorbidea, 6
Tel.: 94 452 02 70
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

ZAMUDIO
Loteria Nazionala
Leizaola L. plaza, 7
Tel.: 94 452 09 59
loterias.zamudio@gmail.com

Sondigarbi
GARBITEGIA
ITURRIGANE, 2
635584941
EGUNERO
8:00-22:00

ATZERA BEGIRA **ATAL BERRIA**

Lezama eta Kurtzearen arteko errepidea, duela ehun urte. Atzean Andra Mari eliza ikus daiteke. Gaur egungo errepidea metro batzuk mugitu da eta aparkaleku bihurtu dute jatorrizko bidea. Indalecio Ojanguren eibartarrarena da argazkia.

1918-1919



INDALECIO OJANGUREN BILDUMA / GURE GIPUZKOA (CC BY-SA)

2026



FREEPIK

NEURODOINUAK

Zer da musika zuretzat?

IRATI GAÑAN RODRIGUEZ
Musikaria eta ikaslea



Zer da musika zuretzat? Askok badiote musika deskribaezina dela. Ezin daiteke ukitu, ezta ikusi ere; baina entzun daiteke. Entzun eta sentitu.

Historian aurkitu den lehen musika arrastoa duela 60.000 urtekoa da, hau da, Goi Pleistozeno edo Pleistozeno Berantiarrekoa. Garai hartan, *Homo Sapiens* gizakia mundutik barrena hedaturik zegoen eta, batik bat, Eurasian ziren *Neanderthal* gizakiek ehizatutako animalien hezurrak eta bestelako tresnak zerabiltzaten 'musika tresnak' egiteko, ahotsa erabiltzeaz batera. Ordutik hona, musikak hainbeste milurtekotan iraun badu, zer izan dezake gerrak, pandemiak eta bestelako krisiak gairatzeko eta, gaur egun, hain garrantzitsu izaten jarraitzeko?

Musika eta sentimenduak eskutik helduta doaz beti. Emozioak etiketatzen ditugun moduan, gauza bera egiten dugu abestiek: kanta 'tristeak' entzun goibel gaudenean, edo abesti 'alaiak' aukeratu dantzatu nahi dugunean. Egia esatera, nire aburuz, ez dago abesti tristerik, alairik, argirik edo ilunik; guk, gizabakook, estimuluen bidez antzematen dugunari jarraituz ezartzen dizkiogu etiketa horiek musikari.

Eta etiketa horiek aintzat hartuta, nahiko erraza da abestiak idaztea, filmetako soinu bandak konposatzea edo telebistan

ikusten ditugun iragarkietako musika sortzea. Dena dela, sormenezko ekin-tza horretan, jakina denez, beste alderdi batzuk ere kontuan hartzen dira. Imajina dezagun, berbarako, beldurrezko film batean, akorde berdintsuak (C - Eb - Gb) erabili beharrean, 'Macarena' entzuten dugula. Pentsaezina dirudi, ezta? Antza denez, momentuko tentsio hori galduko litzateke eta ez litzateke hain erakargarria izango (Parshall, A., 2025)¹. Hori dela eta, iragarkiak sortzen dituzten enpresek abesti eta musika erabat espezifikoak eta egokiak baliatzen dituzte, hiru egun igarota ere, doinua (eta produktua, zer esanik ez) buruan atxiki dezazun.

Horra hor musikaren eta giza burmuinaren arteko lotura. Musika entzuten dugunean, ez da soilik entzumen kortexa aktibatzen. Ia burmuin osoa pizten da. Erritmo batek gure mugimendua koordinatzen du, melodiak oroitzapenak ekartzen dizkigu, eta harmonia jakin batzuek atezuan edo bare egon gaitzen eragiten dute.

Nahasketa hori, baina, ez da kimika hutsa. Soinuaren arabera iragarpena da. Gure burmuinak hipotesiak egiten ditu etengabe: Zer nota etorriko da gero? Zer erritmo? Eta espero duguna gertatzen denean, plazera sentitzen dugu; hausten denean, ordea, ezustea... Musikagile edo konpositoreak, jakinda edo jakin barik, ira-

garpen horrekin jolasean ibiltzen dira abestiak konposatzean (Weigmann, K., 2017)².

Aurrekoak azaltzen du zergatik diren horren eraginkorrak beldurrezko filmen soinu bandak edo iragarkietako doinu gogoraerazak. Gure burmuina patroiak antzematen eta gogoratzen trebatuta dago. Eta musikak, azken batean, patroiak edo ereduak eskaintzen dizkigu, emozioei loturiko patroiak. Horregatik, doinu bat gogoratzen dugunean, doinu horri atxikitako momentu bat, pertsona bat... edo produktu bat gogoratzen dugu.

Horrenbestez, musikak milaka urtetan iraun badu, agian ez zuen iraungo arte soila delako. Beharbada, gure biologiaren zati delako iraun du gaurdaino. Baliteke musika kanpotik etorritako zerbait ez izatea, gure barrenean sortzen den zirra-ra baizik.

Orduan, zer da musika zuretzat? Gure burmuinak mundua ulertzeko darabilen moduetako bat, akaso? ●

¹ Parshall, A. (2025). How composers make horror movie music sound terrifying. *Scientific American*. <https://www.scientificamerican.com/article/how-composers-make-horror-movie-music-sound-terrifying>

² Weigmann, K. Feel the beat. *EMBO Rep* 18, 359–362 (2017). <https://doi.org/10.15252/embr.201743904>



HARATEGIA
ALBERTO

Arbolantxa, 4
Tel.: 944 520 825
48170 ZAMUDIO



RADIO TAXI
FEMADE

Zure taxi, Teorierikoa

Zamudio - Derio - Sondika - Lezama - Larrabetzu - Lolu

24h **94 480 09 09**

ERRESERBAK:
www.taxisaeropuertobilbao.com

DESKARGATU APP-A



TAXI FEMADE



NAGORE LOPATEGI ESCALLADA
Komunitatearen eraldaketarako teknikaria

EMAUS

Beti entzuten ez diren ahotsetarako mikrofonoak

Urtero, otsailaren 13an, Irratiaren Munduko Eguna ospatzen da. Egun horretan, gogorarazi nahi dugu hedabide horrek, aldaketa teknologikoak gorabehera, tresna bizia eta hurbila izaten jarraitzen duela. Emaus Gizarte Fundazioarentzat, irrati ez da soilik komunikazio kanal bat: topaketarako, partaidetzarako eta, batez ere, historikoki isilaraziak izan diren ahotsak proiektatzeko modua da.

Duela urte batzuetatik, Derioko Emaus Eguneke Zentroan Ganbara Gizarte Irratia bultzatzen da. Gizarte bazterkeriako egoeran dauden pertsonen hitza hartzen duten irrati komunitarioa da. Elkarrizketen, gaikako atalen eta eztabaiden bidez, mikrofonoak adierazpide bihurtzen dira, bizi garen munduari buruzko esperientziak, kezak eta begirada propioak partekatuz. Orain arte, 60 podcastetik gora sortu dira, eta erakutsi dute konfiantza eta akonpainamendu espazioak sortzen direnean ahotsak in-

darrez eta aniztasunez sortzen direla. Ganbara Gizarte Irratia, funtsean, hitzak garrantzia duen lekua da.

Komunikazio komunitarioaren aldeko apustu hori handituz eta inguruko beste pertsona eta kolektibo batzuekin aliantzak eginez joan da. Horren adibide da Txorierri Institutuarekin lankidetzak, podcastak sortzeko prozesu batean parte hartu baitu Ganbara Gizarte Irratiarekin batera. Gatazkak irakasgaiaren esparruan, Batxilergoko lehen mailako 40 ikaslek mikrofonoek hainbat errealitate soziali buruz hausnartzeko, hitz egiteko eta ikuspegi kritikoa adierazteko eskaintzen dituzten aukerak esperimendu ahal izan dituzte. Aldi berean, proiektuak komunikazio gaitasunak indartzen lagundu die, tresna digitalak emanez eta komunitatearekin konektatutako ikas-kuntza esperientzia eskainiz.

Proiektua ikasgelan egindako lau saiotan garatu zen, Audiogelako taldearen laguntza teknikoarekin. Ibilbide ho-

rretan, ikasleek sormenezko gidoiak diseinatzeko, BandLab aplikazioaren bidez soinu-baliabideekin esperimendatzeko eta grabazioen alderdi teknikoak zaintzeko ikasi zuten. Prozesua amaitzeko, amaiera ekitaldia eta sari banaketa egin ziren Derioko Gurea Aretoan. Horren ondorioz, arrazismoa, aporofobia, bullyinga, diskriminazioa edo Palestinako genozidioa bezalako gaiak jorratu zituzten berderatzi podcast sortu zituzten. Gazteak kezkatzen dituzten gai konplexuak dira, irratiaren ozen pentsatzeko kanal pribilegiatua aurkitu zutenak.

Gero eta bizkorragoa eta polarizatua den mundu honetan, irrati komunitarioek eta Ahotsak bezalako hezkuntza proiektuek gogorazten digute gure ahotsak proiektatzea oraindik ere ekintza beharrezkoa eta eraldatzailea dela. Izan ere, mikrofonoak irekitzen direnean, komunitate gogoetatsuagoak, inklusiboagoak eta solidarioagoak sortzeko aukerak ere zabaltzen dira. ●

ELORRIETA
INSTALACIONES ELÉCTRICAS

ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA
INSTALAZIOAK, MANTENTZE-LANAK,
KONPONKETAK...

MATERIAL ELEKTRIKOA SALGAI

info@elorrietainstalaciones.com 639 582 547
Uribe kalea 12 behea · Derio 944 540 386

PATXI
OSTALARITZARAKO ZERBITZU INTEGRALA

40 URTE ZUGANDIK GERTU

www.patxi.coop.eus

f t i n

Neiber Poligonoa / Etxezarre 4, 48170 / Zamudio / 944 522 587 / info@patxi.coop.eus

aldekone
hortz klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

—Especialitatea guztiak
zentro bakar batean
—Aurrekontua doan

—Especialitatea:
umeak

Uribe 7, behea
48160 DERIO (Bizkaia)



FREEPIK

TEKNOLOGIA

XABIER DIAZ

@xa2_baraka@mastodon.eus

Ez arma jostailurik erosi, deabruak kargatzen ditu eta

Herbehereetako defentsa ministroak, F35 ehiza-hegazkin amerikarra iphone bat bezala “jailbreakeatzea” posible dela adierazi du (hau da, bere tripa informatikoetan sartu eta aldaketak egitea). Ez da adierazpen makala, horrelako jostailuen artean aurrenetarikoak baita, eta hainbat herrialdek erosi dute jada.

Autoak bluetooth, zein GPS sareetara konektatzeko, marrak zapaltzen ari garenez ohartu edo ibilbideak zehazteko aukerarekin datozen antzera, gailu hauek ere sare militar bereziak erabili, radar zein GPS seinaleak atxitu edo objektiboak bilatu, apuntatu eta erasotzeko prestatutako software eta hardwareak erabiltzen dituzte.... Beste tresna bat baino ez dira, eta auto zein etxeko gailuekin gertatzen den bezala, oinarritzakoak euren funtzionamenduan.

Erabilera erraztuz, gure bizitza erosoagoa edo seguruagoa egitea helburu dute, baina bere arriskuak ere badituzte. Zer gertatuko litzateke norbaitek gure trasteetara konektatu eta kontrola hartuko balu? Gure etxeko tenperatura igo edo jaisten hasiko balitz? Kotxearen balaztekin olgetan hasi? F35 horren misilekin?

Horretarako, denek segurtasun neurri aurreratuak izaten dituzte, komunikazioak zifratuta egoten dira eta bide biometrikoak (hatz marka, begi ninia, ...) behar dira sistemara sartzeko besteak beste. Baina %100 segurtasuna bermatzerik ez da, hackerrei atea guztiz ixtea ezinezkoa.

Beraz, ministroak esandakoarekin, hacker batek 180 miloi dolar balio duen horrelako harrapakari metaliko baten kontrola hartu lezake? Bai... baina ez.

Hasteko, posible izateak ez du esan nahi benetan egiteko modukoa denik. Hegazkinerako sarbidea beharko genuke, eta ez momentu batez bakarrik. Gainera, “jailbreakeatzeak” atea zabaltzen dizun arren, horrek ez du esan nahi kontrola guztiz edukiko duzunik. Sistema oso konplexuak dira, hainbat sareetara konektatzen direnak, hardware integrazio bereziak dituztenak... Horiek denak ulertu barik, gaitza ezer egitea.

ARRISKUA BESTE LEKU BATETIK ETOR LITEKE

Ukraniako gobernuaren kezka batetik abiatuta, F35 hegazkinek software bidezko urruneko “kill switch” (itxaltze botoi) bat ote zeukaten zabaldu zen. Loc-

kheed Martin enpresak, hegazkinaren egileak, albiste hori gezurtatu du, noski, salmentak kolokan jarriko bailituzke. Baina, nork daki?

Erabiltzen duten software eta hardwarea denak dira itxiak, hau da, erosi arren erabili baino ezin dituzu egin, erosleak ezin ditu moldatu edo egokitu. Ezin dugu jakin, barruko prozesu zehatzak zelakoak diren. Hau da, Windows edo MacOS sistema eragileekin gertatzen den bezala, naiz eta “geureak” izan, ez daukagu tripetara sartzerik, ezin ditugu geure behar konkretuetara egokitu eurak ez badute nahi (euskaratu adibidez), eta ezin dugu ziurtatu informazioa biltzen eta bidaltzen ari ote diren.

Makina hilgarri hauetako bat eskuratzen duzunean, saltzailearen menpe zaudete erabat. Mantenua egitea ez da kontu makala, ordezeko piezak eurak baino ez baitituzte egiten, eta funtzionamendurako derrigorrezkoak diren software eguneraketekin berdin.

Bukatzeko kontu bitxi bat: urrunetik kontrolatzea ezinezkoa dela egiazta ezin dezakegun arma izugarri garesti horren softwarea egokitzeko aukera, AEBk soilik herrialde bati eman diote: Israeli. ●

Familia osorako
kalitatezko arreta,
zure esku

ZERBITZU BERRIAK
Logopedia
Podologia
Kinesioterapia

clínica dental
ZAINDUZ
hortz klinika

Txanieri etorbidea, 9 - Lortze | Asteaga erakina | 48160 DERIO
94 454 01 01 | 957 79 54 45
info@dentalezainduz.com | www.dentalezainduz.com

LEIRE BEGOÑA

ULE-APAINDEGIA

MUNICIALE ETORBIDEA, 20
48160 DERIO
94 454 26 32

Jarrai jarraia Facebook-en

Enaitz
TABERNA

Ogitartekoak
Anoak

640 26 84 15
94 455 42 15
Garaioitza, 74
Lezama



1 Gorlizko Ospitalea



2 Azkorriagako gotorlekua



3 Bunkerrak

IÑAKI OLABARRIETA
JOSE ANGEL MENTXAKA

MENDITIK PATXADAZ

Gorliztik Lemoizera, Armintzatik

Bizkaiko kostaldetik jarraituko dugu oraingoan. Gorlizetik Armintzara egingo dugu hasteko, nahiko ezaguna den ibilbidetik, Ermuamendi igoz. Lemoizko elizaraino hurbilduko gara azkenean. Eta bidean, patxadaz joanez gero, badago zer ikusi. Hondartza eta eraikuntza ederrak, harri bihurtutako dunak, gotorlekua, bunkerrak, itsasargia, portua, errotak, arte erromanikoa... eta itsasoa beti presente gure gaurko 14 kilometroko mendi ibilbidean.

Gorlizeko elizaren eta alboko eguzki erlojuarekin hasi dugu ibilaldia. Bertako panel batek beste garai batean herrixka nola izan zitekeen ondo adierazten du. Hondartza ederrerrantz abiatu gara, eta ia ibilbide osoan lagun izango ditugun GR123ko marra zuri-gorriak aurkitu ditugu. Berreskuratutako hareatzetatik goazela hor dugu handi eta ederra, itsas erietxe moduan eraiki eta gaur egun Gorlizko Ospitalea dena. Antza, hormigoi armatuz egindako lehenengotarikoa da. Inguratzen duen horma irudia ere ikustekoa da.

Hondartza amaituta harri bihurtutako duna aurkitu dugu, aldapa gora zuhaitzen babespean hasi aurretik. Goian paraje ederraz gozatu, apur bat jaitsi eta ezkerretara egin dugu, Askorriagako gotorlekua zegoen lekuraino, XVIII. mendean eraikia itsasontzi ingelesaren erasoaren beldurragatik. Egun, hon-

dakin batzuk besterik ez dira gelditzen. Berririo bidean, farora doan errepidea hartu dugu, eta bertara heldu baino lehen, ezkerretik doan bidezidor estu batetik sartu gara. Zuhaitzen artean doan bidezidor polita da, itsasoaren gainean. Amaieran, bunkerrekin egin dugu topo. Hauek frankismoak eraikita daude Europatik etor zitezkeen erasoaren beldur. Geratzen den kanoi bateriaraino jaitsi gara. Atzeko muralak gogoratzen duenez, lan behartuetan, presoan izerdi eta odolez eraikiak izan ziren. Bunkerren barrutik egin dugu igoera faroraino, argi baten laguntzaz. Faroa berria da, 1990. urtean eginda, Kantauriko garaiena.

Markak jarraituz Ermuamendi igo-tzen hasi gara, eta laster, ezkerretara beste bunker pare bat aurkitu ditugu. Grafiti artean, aspaldiko marka kurioso batzuekin egin dugu topo, punteria zehazteko omen ziren. Tontorrera igo gara, ez da

zaila, eta postontziaren ondoan dauden paraje itzelez gozatu ostean, aurrera egin dugu, aterpe antzeko baten ondotik pasatu eta jaisten hasi gara. Nahiko pista aspergarritik Armintzako portu politera heldu gara. Kaia eta txalupak ikusi ostean, talaira igo-jaitsi eta hondartzan amaitu dugu. Arezkoa ez izan arren, oso ederra da, eta nola ez, flischak hemen ere irudi oso politak sortzen ditu.

Ibilbidea hemen amaitu zitekeen, baina hiru kilometro gehiago eginez, Lemoizko erdiguneraino joan gara bide ederretik. Horretarako, orain GR 280ko markak jarraituz, harrizko zubitxo politetik erreka gurutzatu eta hainbat ola eta errota izandako baserri ondotik pasatu gara. Olatxu, Goikola, Dendariena, Arteaga, Aurtene eta Goikoerrota. Hainbat ur-kanal ikusgai daude oraindik. Urizarreko garbitokia pasatu eta elizako kapitel erromaniko bitxiak bisitatzen amaitu dugu ibilbide ederra. ●



4 Ermuamendi



5 Armintzako hondartza eta flischa




6 Urizarreko kapitela erromanikoak

Ibilbidea

Distantzia: 14,2 km

Desnibel positiboa: 489 m

Eskuratu
hemen
ibilbidearen
track-a



Ama
ileapaindegia

Astearte-ostiralea:
9:00-19:00
Laburunbata:
8:00-13:30

Urbe plaza, 1. behea
Zamudio
944 520 419





WIKIMEDIA / MOKKIE

ESTITXU PÉREZ CASTRO

✉ txiribita_mundi

HERBARIOA

Hibiskoa

Hibiscus sabdariffa. Hibiskoa *Hibiscus* generoko landarea da, bere lore koloretsu handiengatik eta bere hazkuntza errazagatik da ezaguna. Espezie asko daude, eta paisaia balio handia dute lorategietan, terrazetan eta abarretan. *Hibiscus sabdariffa* barietateak medikuntza, elikadura eta kosmetika erabilerak ditu. Loreak infusioak, marmeladak, estraktu naturalak eta larruazala zaintzeko produktuak prestatzeko erabiltzen dira.

DESKRIBAPENA

Hibiskoa Malvaceas familiakoa da. Ohikoa da klima tropikal eta subtropikaletan, baina beste eskualde batzuetan ere landu daiteke zainketa egokiekkin. Loreak handiak, ikusgarriak eta bost petalokoak dira, eta kolore deigarriak izaten dituzte: gorria, arrosa, zuria, horia edo laranja.

LORATZEA

Batez ere udaberrian eta udan loratzen da, nahiz eta klima tropikal edo beroetan ia urte osoan loreak sortu ditzakeen. Lore bakoitzak egun bakar bat irauten du, baina denboraldian zehar landareak lore berri bat sortzen du egunero.

SUKALDARITZAKO ERABILERA

Kultura batzuetan, loreak marmeladak, xarabeak edo entsaladak prestatzeko erabiltzen dira. Hibiskoaren lore lehorrak infusioak edo edariak prestatzeko erabiltzen dira (hibisko te ospetsua edo "Jamaikako ura", adibidez). Freskagarriak izateaz gain, antioxidatzaileetan aberatsak dira eta C bitaminaren iturri handia da.

Jamaikako ura

Hibiscus sabdariffa lorearekin (Jamaikako lorea esaten zaio) Jamaikako ura prestatu daiteke, errezeta ugari daude, baina, funtsean, hibisko infusio gozatua da eta limoi ura gehitzen zaio. Infusioa ur hotzarekin edo epelarekin egitea gomen datzen da (40 gradutik gorakoa ez izatea, C bitamina kontserbatzeko)

Hibisko-infusioa

Ura berotzen da (ez du irakin behar C bitamina ez suntsitzeko). Gehitu hibisko lore lehor koilarakada bat (*H. sabdariffa*) ur beroa duen katilu batean. Utzi bertan 5-10 minutuz estalita (gau osoa utzi daiteke zapore handiagorako). Iragazi eta gozatu infusioaren zapore azido eta atseginaz. Egunean hainbat katilu edan daitezke, nahi bezala gozotuak. Ez da edari kitzikagarria eta, beraz, te edo kafea eraginkortasunez ordezkatzen du. Digestio eta biziberritze edari bat da, propietate antioxidatzaileak ditu eta kolagenoaren ekoizpena estimulatu laguntzen du. Hibiskoak propietate sendagarri gehiago ditu, eta, horiek aprobeztatzeko infusioa edatea gomendatzen da.

EZAUGARRI MEDIZINALAK

- Antiseptikoa eta diuretikoa da, maskuriko hanturak edo baginako infekzioak prebenitzeko egokiak.
- Hipotentsorea da (tentsio arteriala jaisten laguntzen du).
- Eragin diuretiko leuna duen digestioa errazten du.
- Hidratazioan laguntzen du, egarria kentzen du eta zapore freskagarria du. Hotz edo bero hartu daiteke.
- Toxinak deuseztatzen laguntzen du.

ERABILERA KOSMETIKOAK

Hibisko loreekin xanpuak, kremak, esfoliatzaile leunak eta maskarak egin daitezke. Efektu hidratatzaileak eta leungarriak ditu larruazalerako eta ilerako. Infusioa aurpegiko toniko gisa erabili daiteke edo maskaretara gehitu, buztinekin edo aloe verarekin konbinatuta, propietate antioxidatzaileak gehitzeko.

Hibiskoaren beratzte oliotsua:

Hibisko lore lehorrak erabili behar dira, apur bat birrinduak. Bete katilu baten bi heren loreekin. Erabat estali kalita-

te handiko landare olioarekin (almen- dra-olioa, jojoba...). Mazeratzen utzi hiruzpalau aste leku ilun batean. Ondo iragazi erabili aurretik. Erabilerak: Gor- putzeko olioak azal lehor edo zahartu- rako. Ilearen olioak, sendotzeko eta dis- tira emateko.

BITXIKERIAK

Hibisko espezie batzuk oihalak eta elika- gaiak tindatzeko erabili izan dira forma naturala.

ORTUAN

Hibiskoa landare apaingarri gisa oso preziatua da bere lore deigarrirei eta loral- di luzeari esker. Loreek erleak, tximeletak eta beste polinizatzaile batzuk erakartzen dituzte, eta lorategiko biodibertsitateari laguntzen diote.

KONTRAINDIKAZIOAK

Ez da gehiegizko kontsumoa gomenda- tzen tentsio arterial baxua duten pertso- nentzat, kontsultatu medikuari. Ez da gomendatzen hibiskoa hartzea haurdu- naldian, uterotonikoa baita. ●

Landareak batzeko aholkuak

Orokorrean: hartu ondo ezagutzen duzu- na; hartu neurritz eta soilik lekuan asko badaude; ez eraman dena, utzi beti zer- bait; hartu bakarrik erabiliko duzun lan- darearen zatia; ez atera sustraitik, moztu ondo hazten jarrai daitezen; ez moztu loreen %20 baino gehiago, zuhaitzak edo zuhaixkak badira; hartu bakarrik erabili- ko duzuna, geroago itzuli ahal zara, edo beste leku batzuetara joan; ez jaso gune babestuetan edo parke naturaletan.

Non: larreetan eta autorik pasatzen ez den bide-ertzetan; goldatu gabeko ba- soetan; toxikorik erabiltzen ez den or- tuetan eta lorategietan; INOIZ EZ areke- tan, fumigatutako landetan eta ibaiertz kutsatuetan.

Noiz: goizean, ihintza sikatu ondoren; hartu hostoak erabiliko ditugun egunean bertan; hartu loreak goizean eta sustraiak arratsaldean; landareak gorde edo sikatze- ko, hobe da ilbehera denean jasotzea.

Materialak: eskularruak, artaziak, pape- rezko oihalezko poltsa, zumezko saskiak...



WIKIMEDIA / DEBORAH GRISCOM



GURENA
ASISTENTZI ETA EGOITZA-ZERBITZUAK



Babespeko apartamentuak
ZURE NEURRIRA

LOIU
Unbe txiki bidea 9
(Urdarieta ikastetxearen aurrean)
944 530 049
www.gurena.com



SUKALDARITZA

All'Assassina pasta



OSAGAIAK:

- 320g pasta (tradizionalki, espageti edo linguini)
- 500ml tomate kontzentratu
- 2 baratxuri ale

- Tipula
- Haragi txikitua
- Cherry tomateak
- Barazki salda

- Pipermin apur bat (nahi izatekotan)
- Olio
- Gatza eta piperbeltza

SALSA PRESTATZEKO ERA:


Zartagin handi batean, jarri berotzen olio, eta bero dagoenean, bota baratxuria eta tipula bigun egon arte. Pipermina ere jarri nahi izatekotan. Jarraian, bota haragi txikitua eta ondo sukaldatu. Ondoren, gehitu tomate kontzentratua eta sukaldatu pixkanaka minutu batzutan saltsa ilundu arte.

PASTA PRESTATZEKO ERA:

Jarri zuzenean, eta egosi barik, pasta zartaginean saltsarekin batera. Irabiatu pasta saltsarekin nahastu arte. Pixkanaka joan gehitzen barazki salda eta irabiatu, risotto bat egiterakoan egiten den bezala. Salda agortzen den heinean, joan pixkanaka gehitzen salda gehiago zartaginera. Jarraitu horrela pasta bere puntuan egon arte. Pasta toki batzuetan apur bat erre-

ta moduan geratuko da, hori da bilatzen dena, horrek ematen dio errezetari zapore berezia. Beste alde batetik, zartagin txikiago baten sukaldatu minutu gutxi batzutan cherry tomateak. Atera pasta zartaginetik ahal bezain laster eta jarri platerean, jarri gainetik cherry tomateak eta nahi izatekotan bota olio txorrotada bat eta piperbeltz apur bat jan aurretik.

DENBORA-PASAK



GURUTZEGRAMA

Egunean zauze Txorierriko albisteetaz? Bete gurutzegrama eta ezkutuko hitza aurkitu.

1. Non zabaldu dute haurreskola lehen aldiz? **2.** Larrabetzun, zaintzak demokratizatzeko zer sortu dute? **3.** Zer lehiaketako saria irabazi du Oskar Gazteluk? **4.** Zer kontrolatzeko neurriak eskatu dituzte Erandion? **5.** Non erai-kiko dituzte Loiuko udal igerilekuak? **6.** Zein jaialditan irabazi du saria Olaia Aguayok? **7.** Zein da Mikel Egiaren lanbidea? **8.** Zein lasterketak zeharkatuko du Txorierri apirilean? **9.** Txorierri eta Deustu arteko zein tunel itxi dute sei hilabeterako? **10.** Zelan deitzen da Lezamako haur literatura saria?

SUDOKU ERRAZA

2		3	4					5
8		9	1	6		7		4
		6		3			1	9
7		2			3		6	
		8	2	5				
		1	6		7			2
		7			5	9	2	6
9	3		7	2				
6				9		4	7	

SUDOKU ZAILA

		9	5	8	6			
				2				
4						6	8	3
9			6	5			3	2
	6		7				9	8
	3		2			7		4
		3						
6	2			1	5		4	
			4				5	

MARTXOKO AGENDA**1, domeka**

08:00 **Tokiko txangoa** Untza mendi taldearekin **DERIO** Nagusien etxetik

09:00 **Txorierrri pedalak emoten: Zeanuri** **DERIO**

11:30 **Lezamako zuhaitz eguna** Zuhaitz landaketa eta sasimartxoa **LEZAMA** Guardetxe inguruan

17:00 **Como cabras** filma **DERIO** Gurea Aretoan

18:30 **Etxea antzenzlana** **LARRABETZU** Eskolako jantokian

19:00 **Marty Supreme** filma **DERIO** Gurea Aretoan

3, martitzena

17:00 **Desmantelando el mito del amor romántico** hitzaldia **DERIO** Kultur Birikan

4, eguaztena

09:00 **Jubilatuen sagardotegira irteera eta bazkaria** **SONDIKA** Erretiratuen Etxean

6, barikua

18:00 **Vecinas, vivas donde vivas** dokumentalaren emanaldia Zutunik eta Anpuluen eskutik **LARRABETZU** Ludoteka gaineko gelan

18:30 **Ez da kasualitatea** bertso saio musikatua **LEZAMA** Kultur aretoan

7, zapatua

09:30 **Euskal Herriko 17. Mus Txapelketako kanporaketa** **LEZAMA** Enaitz Tabernan

12:30 **Sondikako emakumeen bazkaria** **SONDIKA** Izarza Jatetxean

15:00 **Emakumearen eguneko bazkaria** **LOIU** Eskertza jatetxean

8, domeka

09:00 **Txorierrri pedalak emoten: Gueñes** **DERIO**

11:00 **M8ko manifestuaren irakurketa eta berdintasunaren aldeko martxa** **DERIO** Frontoian

11:30 **Emakume artisau eta sortzaileen azoka** **SONDIKA**

12:00 **Kontzentrazioa eta adierazpen irakurketa** **LEZAMA** Hilario Astorki Plazan

9, astelehena

09:00 **Sextruck** **DERIO** Eskolan

10 eta 24

18:30 **Irakurketa dramatizatua lantzeko tailerra** **LARRABETZU** Ludoteka gaineko aretoan

11, eguaztena

19:00 **Ernaitzen Gazte Komitea M17** **SONDIKA** LABen egoitzan

12, eguena

19:00 **Como actuar en emergencias de montaña** hitzaldia Untza mendi taldearekin **DERIO** Kultur Birikan

13, barikua

18:00 **Osasungintzari buruzko hitzaldia** Rebeka Ubera Aranzeta EH Bilduko parlamentariaren eskutik **LARRABETZU** Ludoteka gaineko lokalean

14, zapatua

9:30 **Larrabetzuko Maskarada** **LARRABETZU**

18:15 **Apurtuarteren eskutik Kar mele ibarrondori omenaldia** **ERANDIOGOIKOA** Arteaga zelaian

15, domeka

09:00 **Txorierrri pedalak emoten: Mendata (Artape)** **DERIO**

09:00 **Brinkola-Urretxura irteera** Untza mendi taldearekin **DERIO** Frontoiz atzealdetik

19:00 **Escape Room antzezlan** **SONDIKA** Kultur aretoan

16, astelehena

18:00 **¿Qué llevamos las mujeres en el bolso?** helduentzako ipuina **DERIO** Kultur Birikan

17, martitzena

17:00 **Una rubia muy legal** bideo **forum** **DERIO** Kultur Birikan

20, barikua

10:00 **Athletic museoa + Biwak Derio irteera** **DERIO** Gaztelekutik

22, domeka

XXIII. Txakolin Eguna **LARRABETZU**

09:00 **Txorierrri pedalak emoten: Okendo** **DERIO**

08:00 **Mendi irteera Zarateaitzera** Untza mendi taldearekin **DERIO** Nagusien etxetik

12:00 **Berdintasunaren aldeko martxa** **LOIU** Udaletxeko plazatik

26, eguena

19:00 **Beste zer bait** berba, Danele Sarriugarte berbalagun **LARRABETZU** Ludoteka gaineko lokalean

27, barikua

19:00 **Julen Axpe** Korrika Kulturala **DERIO** Gurea Aretoan

28, zapatua

19:30 **Dantzatzeko prest-Disko festa** Korrika Kulturala **DERIO** Sollube kalean

29, domeka

Korrika 24 Txorierrin zehar eta bukaera jaia Bilbon

07:30 **Mendi irteera Molinar-Lanestora-ra** Untza mendi taldearekin **DERIO** Nagusien etxetik

9:00 **Txorierrri pedalak emoten: Goiuria** **DERIO**

17:30 **Bertso-pilota ekitaldia** Korrika Kulturala **DERIO** Frontoian

Eskatu **Nafarroa erdi eta hegoaldeko** oliba-olio
birjina estra, kontserbak, ardoa, arroza, pasta eta
lekaleak **euskaraz etiketatuta eta**
jatorrizko prezioan



ESKUTIK ESKURA EGITEN DUGU HERRIA

errigora.eus

otsailak 26-martxoak 18

martxoak 22



XXIII. Txakolin Eguna larrabetzu

11:00 Irekiera
12:00 Brindisa

Antolatzailea:

 **LARRABETZU**
UDALA

Laguntzaileak:

bbk 

 **OLARRETA**
Herri txupada